

pertsonaiak
izaskun moyua
isaac puente

GEU

2,40 €

2007ko ekaina

174

gaiak
presoen senideak
lanbide heziketa

musika
the brontës
bidaia
panama



araba euskaraz 07. argantzon. ekainak 17

GAMARRA

Zure etorkizuneko
ateak irekiko
dituzten lanbideak

A eta D Ereduetan



GOI MAILAKOA:

- JATETXE-ARLOA (2 ikasturte)

ERDI MAILAKOAK:

- SUKALDARITZA (2 ikasturte)
- GOZOGINTZA ETA OKINTZA (ikasturte I eta hiruhilabeteko I)

AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA:

Ekainaren 1etik aurrera

Ostalaritza
eta Turismo
Eskola



Escuela
de Hostelería
y Turismo

OSTALARITZA GAMARRA BHI

C.I.R.-erako Errepidea z/g 01510 Gamarra-GASTEIZ

Tfnoa: 945 25 80 25 - 945 25 81 00

Faxa: 945 28 19 02

www.hosteleriagamarra.com

rutak Cuadrilla de ZUIA 2007
ZUIAKO Koadrilako ibilbideak 2007
Ekainetik Urrira

ARTE eta NATURAZ Blai

Ekaina: 16 - 30
Uztaila: 14 - 28
Abuztua: 11 - 25

1. IBILBIDEA ARRAZUA-UBARRUNDIA LEGUTIANO / ZIGOITIA

- **ZURBANO: Eliza eta Jauregiak.** 10:00etan elizan.
- **URBINA: Eliza** 11:30ean Urbinako elizan.
- **GOROSTIZAKO DONE PETRI BASELIZA (OKOIZTA-ZESTAFE)** 12:15ean San Pedro de Gorostizako basilizan.
- **MANURGA: Eliza eta Jauretxeak** 13:15ean Manurgako elizan.
- **ZURBANO: Iglesia y conjunto patrimonial de palacios.** 10:00 h. en la iglesia.
- **URBINA: Iglesia** 11:30 h. en la iglesia de Urbina.
- **ERMITA DE SAN PEDRO DE GOROSTIZA (ACOSTA-ZESTAFE)** 12:15 h. ermita de San Pedro de Gorostiza.
- **MANURGA: Iglesia y Casas-Palacio** 13:15 h. iglesia de Manurga.

Ekaina: 17
Uztaila: 1 - 15 - 29
Abuztua: 12 - 26

2. IBILBIDEA ZUIA

- **OROKO AMA BIRJINAREN SANTUTEGIA** 10:00etan OROko santutegian.
- **MURGIA: Bea-Murgia Jauregia eta Ezti Museoa** 11:15ean Murgiako plazan.
- **SARRIA: Errota eta Karegilea** 12:45ean Sarriako elizan.
- **SANTUARIO DE Nª Sra. DE ORO** 10:00 h. en el Santuario de Oro.
- **MURGIA: Palacio Bea-Murgia y Museo de la Miel** 11:15 h. en la plaza de Murgia.
- **SARRIA: Molino y Calero** 12:45 h. en la iglesia de Sarria.

Ekaina: 23
Uztaila: 7 - 21
Abuztua: 4 - 18

3. IBILBIDEA URKABUSTAIZ

- **GOIURI: Eliza, Errota eta Ur-jauzia** 10:00etan Goiuriko elizan.
- **IZARRA: 'Irubidaur' Museo Etnografikoa eta Eraikuntzak** 11:30ean Museoa (Doña Lola etxea), Izarra.
- **ABEZIA** 13:00ean elizan.
- **GUJULI: Iglesia, Molino y Cascada** 10:00 h. en la iglesia de Gujuli.
- **IZARRA: Museo Etnográfico 'Irubidaur' y Conjunto Edificado** 11:30 h. en el Museo Etnográfico (Casa Doña Lola), Izarra.
- **ABEZIA** 13:00 h. en la iglesia.

Ekaina: 24
Uztaila: 8 - 22
Abuztua: 5 - 19

4. IBILBIDEA LEGUTIANO/ ARAMAIO

- **LEGUTIANO: Hirigune Historikoa** 10:00etan Legutianoako plazan.
- **OLAETA: Eliza, Arandano-saila eta Orein Baserria** 11:00etan elizan.
- **IBARRA eta AZKOAGA AUZOA: Hirigune Historikoa eta Sastiñako Baseliza.** 12:30ean Sastiñako basilizan (udaletxearen aurrean).
- **LEGUTIANO: Casco Histórico** 10:00 h. en la plaza de Legutiano.
- **OLAETA: Iglesia, Plantación de arándanos y Granja de Ciervos** 11:00 h. en la iglesia.
- **IBARRA DE ARAMAIO y BARRIO DE AZKOAGA: Casco Histórico y Ermita de Sastiña.** 12:30 h. en la ermita de Sastiña (frente al Ayuntamiento).

ARAZUA-UBARRUNDIA DE ZUIA

Arabako Foru Aldundia



Cuadrilla de Zuiako Koadrila

www.cuadrillazuia.com

Ibilbide guztiak goizeko 10:00etan hasiko dira zehazturiko tokietan eta 14:00etan amaituko dira.
Informazio gehiago: 945 243 828 Informazio turistiko: 945 43 04 40 Zuiako Koadrila: 945 430 167

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



sumarioa 174

7



IZASKUN MOYUA

13



ARABA EUSKARAZ 07

22



THE BRONTËS


- 4 zeregin
ekaineko agenda
portukoplak. ekainak 12, parral
- 7 geupertsonaia
izaskun moyua, emakunderen zuzendaria
- 11 euskaltasunean. gasteiz
cristina aparicio
- 12 kaletik / idazleen zutabea
uda / xabier olaso
- 13 geugaia
araba euskaraz 07. ekainak 17, argantzón
- 16 gaztezulo aldizkaria
zakilaren harrotasuna
- 19 geu. jaialdi-gala
kronika/irudiak
- 22 artetxokoa
the brontës musika taldea
- 24 proposamenak / haur&gazte literatura
cd-a&liburua / txabi arnal
- 25 bathirutan
preso politikoen senideak
- 28 batbitan
diocesanas: lanbide heziketa euskaraz
- 30 batbitan
'isaac puente, el médico anarquista de maez-tu' liburua [francisco fdz de mendiola]
- 32 orri batean
euskal herriak bere eskola: lanbide heziketa
- 33 historia&euskara
toloño mendilerroko "ateak"
- 34 bidaia
panama
- 35 errezeta
berdel solomoa tomate coulisarekin
- 36 batbitan
gasteizko jatetxeak: tapelia
- 38 arababixotzian / historiazutabea
mundina / erlantz urtasun
- 39 umorea
iñigo sarasola

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkari batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune veleaz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak:

josune veleaz de mendizabal, edurne begiristain, maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhoa arriaga eta naroo cuesta | azala: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: xabier olaso, mundina, kike fdz. de pinedo, txabi arnal, erlantz urtasun, diocesanas-mendigorrotzako ostalaritza eskola | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzaileak: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



zeregin euskaraz


ARABA EUSKARAZ 07. 'GARENAREN JOSTUN'

ekainak 17, igandea,
ARGANTZONen.
pilota txapelketa, herri kirolak,
dantzariak, betizuak, tapia eta
leturia, pirritx eta porrotx, sixty
sexers, neubat, betagarri...
www.araba-euskaraz.org



ZUIA EUSKARAZ

ekainak 13-30
- 13: HITZALDIA
no sabemos euskera... ¿cómo
podemos ayudar a nuestro@
hij@s?
iñaki eizmendi & julio ibarra
udal liburutegian, 20:00



- 15: POU ANIAK
eskala erakustaldia (18:00) /
diaporama (20:00)
udal kiroldegian
- 19: HITZALDIA
'euskara zuian eta araban,
historian zehar'
kike fdz de pinedo&jabi otsoa de
alda
udal aretoan, 20:00
- 21: ARDO DASTATZEA
murgiako plazan, 20.00
- 23: SAN JUAN SUA
umeentzako jolasak, trikitilariak,
dantza plaza (bidabarri taldea),
txokolatada...
(19:00etatik aurrera)
san juan sua (22:00)
- 27: DIAPORAMA
afrika barrenean: kenya, kongo,
uganda...
udal aretoan, 20:00

- 29: TXAN MAGOA
murgiako plazan, 19:00
- 30: ZUIA EUSKARAZ EGUNA
(egunean zehar labeldun-txahal bat
burduntzian erreko da herriko
plazan)
18:00: kiki, koko eta moko
pailazoak, murgiako plazan
20:00: imuntzo & beloki
(dantzaldia-erromeria), murgiako
plazan
20:00: txahalki pintxoak txosnetan
22:00: herri afaria (txahalki jana),
murgiako plazan
bertan arabako bertsolariak: oihane
perea & iñaki viñaspre
01:00: imuntzo & beloki (gau jaia)
BIDABARRI EUSKARA TALDEA
ZUIAKO GAU ESKOLA - AEK
ZUIAKO UDALA

GEU ELKARTEA

- GEUREKIN MENDIRA
ekainak 10, igandea
Orozko ibarreko GOROSTETA
(1261) mendira txangoa
irteera: loaina plazatik
ordua: 9:00
arduraduna: iñaki (945146296)
- KULTUR ERROTA



ekainak 12, asteartea
PORTUKOPLAK. MIKEL
URDANGARIN & KIRMEN URIBE
'zahrregia txikiegia agian'
egitasmoa eta gero, lan berri bat
taularatzera datoz mikel urdangarin
eta kirmen uribe. oraingo honetan
bi-biak eta bakar bakarrik.
elkarrengana biltzeko arrazoia
"portukoplak" izan da, uribek
berak itsasoari buruzko kantak eta
poemak bilduz egin duen liburua.
zuzenean kantatuko dituzte bertso
zaharrak eta berriagoak, irakurriko
olerkiak eta ipuinak, guzti-guztiak
itsasoari lotuta.
parral tabernan, 20:30

- IRAKURLE
KLUBA
ekainak 28,
osteguna
liburua: jose
luis otamendi,
EURI
KONTUAK,
susa 1995
hikaatenean (pintore kalea, 13),
20:00
dinamizatzailea: iban zaldua
www.geugasteiz.com



GAUEKOAK. JAIA
KONTZERTUA: LISABÖ + NAUT
ekainak 9.
artium-en, 21:00
sarrera doan
www.gauekoak.com



BISITALDI GIDATUAK
- GATZ HARANA. GESALTZA
AÑANA
astelehenetik igandera (jaiegunak
barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 /
16:00 / 17:00 / 18:00
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako
haurrak: dohainik / taldeak: euro 1
945351111
www.vallesalado.net
- ARTIUM
igandero, 11:30ean
doan [taldeentzat (25 lagun
gehienez) gidari-zerbitzua kontrata
daiteke (aldez aurretik abisatuz. 75
euro orora, sarrera barne)]
945209010
www.artium.org
- IRUÑA-VELEIA
945403044 / 652720947
www.veleia.com
- ANDRA MARI KATEDRALA:
945255135
www.catedralvitoria.com

ARTIUM. UDALEKUAK
ZURE HIRIA EZAGUTU ETA
APROBETXATU. ARTEA ETA
NATURA
(6-10 urte bitarteko umeentzat)
uztailak 2-27
9:30-14:00 / astebete-2 aste-4
aste
jarduerak elebidunak izango dira
izena emateko epea: maiatzaren
7tik aurrera (plazak agortu arte)
argibideak & erreserbak:
945209010
www.artium.org

GORA TABERNA

(gasteizko alde zaharra,
945121452)
KONTZERTUAK EUSKARAZ

PARRAL TABERNA

(gasteizko alde zaharra)
KONTZERTUAK, ANTZERKIA,
ERREZITALDIK,
DIAPORAMAK... EUSKARAZ
asteartero, 20:30ean

MINTZA EGUNA

ekainak 2
donostian
ongi etorria, ibilbide
gidatua, hamaiketako
(arrano beltza euskal
tokian), bazkaria, sari
banaketa, kantak eta
dantza
www.topagunea.org



XIBA 2007

HERRI KIROLENTOPAKETA
ekainak 2
foru plazan
euskal herrien arteko 4. joko
topaketak: xiba, harri jasotzea,
dantza, lokotxak, sokatira...
izena emateko:
eneko.aif@ikastola.net
xibaaraba@euskalerrria.org

UDAL FOLKLORE AKADEMIA

IKASTURTE BUKAERAKO
ENTZUNALDIA
ekainak 15
principal antzokian

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística


Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

300dik gora jotzaile, dantzari eta kantari arituko dira irakasleekin batera, ikasturtean zehar landu eta emanaldi honetarako berariaz prestatu dituzten musika tradizionaleko piezak eskainiz / sarrera: 4 euro
www.vitoria-gasteiz.org

EHZ EUSKAL HERRIA ZUZENEAN



ekainak 29-30, uztailak 1
 IDAUZE-MENDIN (xiberua)
 laguntzaile izateko: ekainaren 15a bitartean
gazteak2@topagunea.com / 946215116
www.topagunea.org
www.festival-ehz.com



GRAFFITI LEHIAKETA
 uztailak 14, gernika-lumón
 lanak aurkezteko epea: uztailak 4 hiru sari: 1.500, 1.200 eta 900 euro
gazteak2@topagunea.org
www.topagunea.org/graffiti

X. IGARTZA SARIA
 epea: ekainak 29
 idazle berrientzat sortutako literatura sorkuntza beka
 [zer: narratibiko lanak egiteko proiektuak/ saria: 6.000 euroko diru laguntza urtebeteko epean idazlan amaitua aurkezteko]
 beasaingo udala (943028063)
euskera@beasain.net

LITERATUR LEHIAKETAK
 epea: irailak 7
 >ERNESTINA DE CHAMPOURCIN (POESIA)
 >IGNACIO ALDEKOA (IPUINAK)
 >BECERRO DE BENGEOA (SAIAKERA)
 arabako foru aldundia (945181818)

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA. UEU
 35. UDAKO IKASTAROAK
 uztailak 2-20
 matrikulatzeko epearen amaiera: ekainak 27
 eibar, baiona, iruñea, lizarra
 ikastaroak: emakumea, bertsolaritza, familia, antzerkilaritza, literatura, musika, osasuna, sexologia, yoga, historia...
www.ueu.org

DURANGOKO AZOKA. I. KARTEL LEHIAKETA
 epea: uztailak 13
 -kartela 70 cm x 50 cm neurrikoa izango da (ez-etzana)
 -saria: 1.300 euro
 -derrigorrez jarri beharreko testua hau izango da:
 42. durangoko euskal liburu eta disko azoka abenduaren 5etik 9ra
 gerediaga elkarteak: 94 681 80 66 / gerediaga@durangokoazoka.com
www.durangokoazoka.com

LIBURUTEGI BIZIDUNAK
 (gonbit-txartelak: jarduerak hasi baino astebete lehenagotik gizarte etxeetan)
 - HAURRENTZAKO KOMIKI

LANTEGIA: IÑIGO SARASOLA
 ekainak 6
 abetxuko g.e., 18:00
 adina: 6-10 urte / iraupena: 60'
 - LIBURUTEGIA PLAZARA
 ekainak 20
 abetxuko g.e.-ko plazan, 17:00-20:00
 adina: edozein / euskaraz&gazelaniaz
 - IPUIN-KONTALARIA: IKER DIAZ
 'kontu-kantari, kontu-kantari'
 ekainak 20
 abetxuko g.e.-ko plazan, 18:00
 adina: edozein / iraupena: 50'
 - LITERATUR KOMETEN
 LANTEGIA: IÑAKI CARRETERO
 ekainak 21
 aldabe g.e., 18:00
 adina: 6-10 urte / iraupena: 60'
 - IPUIN-KONTAKETA
 ANTZEZTUA: TITIRITEROS DE SEBASTOPOL
 '1001 gauak'
 ekainak 14
 ariznabarra g.e., 18:00
 adina: familiak / iraupena: 60'
 - CUENTOS DE RISA CON LUISA Y MARISA: BELEN ALVAREZ
 'ateak edonon sortzen direnean'
 ekainak 19
 arriaga g.e., 18:00
 adina: 4 urtetik gora / iraupena: 55'
 - IPUIN-KONTALARI
 MUSIKADUNA: KOLDO AMESTOY & PANTXIX BIDART
 'kontu kantari'
 ekainak 5
 el pilar g.e., 19:30
 adina: helduak / iraupena: 75'
 - HAURRENTZAKO II.
 ILUSTRAZIO LEHIAKETA. SARI BANAKETA
 ALAITZ MURO & AGURTZANE VILLATE
 ekainak 22
 el pilar g.e., 18:00
 adina: familiak / euskaraz&gazelaniaz / iraupena: 60'
 - HATZTXOTXONGILOEN
 LANTEGIA: IÑAKI CARRETERO


ekainak 26
 el pilar g.e., 17:30/20:00
 adina: 3 urtetik gora / euskaraz&gazelaniaz / iraupena: 150'
 - LEHIAKETA
 'asmatu zein liburu den'
 ekainean zehar
 el pilar g.e.
 adina: helduak / euskaraz&gazelaniaz
 - IPUIN-KONTAKETA
 ANTZEZTUA: TITIRITEROS DE SEBASTOPOL
 '1001 gauak'
 ekainak 7
 hegoalde g.e., 18:00
 adina: familiak / iraupena: 60'
 - IPUIN-KONTALARIA: IÑAKI CARRETERO & UXUE ZAPATA
 'entzun-entzun'
 ekainak 15
 judimendi g.e., 18:00
 adina: 4-7 urte / iraupena: 60'
 - HAURRENTZAKO KOMIKI
 LANTEGIA: IÑIGO SARASOLA
 ekainak 7
 lakua g.e., 18:00
 adina: 6-10 urte / iraupena: 60'
www.vitoria-gasteiz.org/bibliotecas

bestelakoak
 - KALDEARTE
 ekainak 8 - 9 - 10
 gasteizko kaleko arteen erakustaldia
www.vitoria-gasteiz.org
 - I. EUSKAL SALSATOPAKETA
 ekainak 29-30
 gasteizko barceló aretoan (gasteiz hotela)
 tailerrak, erakustaldiak, festak parte-hartzaileak: adrian&anita, pura salsa, tango mío, changó... antolat.: euskalsalsa elkarteak inform.: café havana pub (tomas zumarraga dohatsuaren kalea) 945229397-615169403-660660429
javiagote@telefonica.net
clavelatina@gmail.com
 - BILBAO BBK LIVE FESTIVAL
www.bilbaobbklive.com

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
 Caja Vital Vital Kutxa



eguneko
menua

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX **PITTILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec
Paper Berezak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Komiseten Estampaketak
azkarprint
Inprimatza / Inprimategia
Edozein Inprimaketara
moto.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eramun
Argazki - Estudioa

Heradio Fournier, 23
(laborategia) 945 13 71 02
Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin




Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna
zure esku"

El Clarete
jatetxea



unai eta patri fdr. de retana
zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874



KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



IZASKUN MOYUA, Emakunderen zuzendaria

“Hierarkia estereotipoei eusten diegun bitartean, tratu txarrak egongo dira”

Txaro Arteagaren lekukoa hartu zuen 2005 urtean eta ordutik da Emakundeko zuzendari. Eusko Legebiltzarrak Berdintasunerako Legea onartzearekin batera hartu zuen kargu berria Izaskun Moyuak. Lege hori da, bere ustez, emakume eta gizonen berdintasunaren alde orain arte lortu den mugarri handiena. Emakunderen egoitzan hartu gaitu. Irribarretsu. Bere bulegoan egin diogu elkarrizketa. Argia da tokia, txukuna, barea. Erantzuteko modua bezalaxe: argia, txukuna, lasaia.

t. edurne begiristain

a. edorta sanz

Bi urte bete dira Emakundeko zuzendaritza hartu zenuenetik. Zer-nolako esperientzia izan da orain artekoa?

Oso balorazio ona egiten dut. Uste dut gizarte honetan memoria gero eta ahulagoa dugula, anestesiatuta gaudela. Izan ere, atzera begiratzen badugu ikus dezakegu emakumeen alde azken urteotan eman diren aurrerapausoak handiak izan direla. Horregatik diot balorazio oso ona egiten dudala, ona eta lasaia. Jakin badakit aurrean erronka asko ditugula, baina orain arte lortutakoa ere ugaria izan da. Azken bi urteetan ongi errotu dira datozen urteetan berdintasun politiken zutabeak izango direnak. Horren lekuko eta protagonista izatea ere bereziki garrantzitsua dela uste dut.

Berdintasun politiken aldeko zutabe nagusia Eusko Legebiltzarrak duela bi urte onartutako Berdintasunerako Legea izan da, ezta?

Bai, dudarik gabe. Emakunde 1988an jaio zenetik lortutako mugarri nagusia izan da lege hori. Nazioartean berdintasunaren alde eskatzen denari erantzuten dio, eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna arautzen du. Duela bi urte erdietsi genuen legea aurrera ateratzea, eta bi urte hauetan oso garrantzitsua izan da erakustea legea ez dela baztertuko, eta ahalegin guztiak egiten ari direla berau garatzeko.

Hala ere, legea erabat garatua izateko asko falta da...

Bai, lege bat den neurrian, horrela da. Lege bat ezin da lau urtetan garatu. Baina egia da legealdia amaitu artean legearen oinarriak martxan jartzea lortuko dela, hau da, administrazioek eta

**gizarte honetako
erronka nagusia da
elkar zaintzen ikastea**



gizarteak berdintasunaren alde lan egiteko behar dituzten tresnak martxan jarriko direla. Ez dut uste lau urtetan emakumeen egoeran aldaketa handiak nabarituiko ditugunik, baina berdintasunaren aldeko lanarentzat funtsezkoak diren mekanismoak eskura izatea erdieskiko da.

Berdintasunaren gaia politikarien agendetako lehentasunen artean dagoela uste duzu?

Prozesu bat da. Eta prozesu horren lehen zatia izan zen berdintasunaren gaia politikarien diskurtsoetan egotea. Agendan egoteak nire ustez esan nahi du agenda praktikoa egon behar duela. Hau da, egunez egun ahailegin guztiak egin behar direla berdintasun politikak gauzatuz joateko. Lehen prozesu horretan politikariek berdintasunaren esanahia ulertzea, eta gaiarekiko sentsibilizazioa lortzea izan da. Lehen prozesu hori erdietsi dela esan daiteke. Ez nuke esango agenda praktikoa lehen postuan daudenik berdintasunerako politikak, baina argi dagoena da zenbait erakundetan eta politikariren partetik berdintasunaren aldeko konpromisoa hartu dela. Hori lortzen den neurrian, besteentzako adibidea izango da, eta hori ona da. Dena dela, arestian esan dudana moduan, prozesu bat da, eta urratsak eman behar dira: ulertu behar da hemen desberdintasun arazo bat dagoela, datuak mahai gainean jarri behar dira, erabaki politikoak hartu, agenda politikoan lehentasun moduan jarri, formakuntza landu... Denbora behar duen prozesua da, duda barik.

Hortaz, prozesu hori burura eramatea da Emakunderen erronka nagusia hemendik aurrera?

Ezinbestekoa da Administrazioak genero ikuspegia bere politiken barruan uztartzea. Administrazioak mekanismo eta egitura zehatz baten beharra dauka politika horiek garatu nahi baditu, batez ere, formakuntza eta planifikazio alde-

tik. Emakundetik Administrazioaren barruan egin behar den lan handi hori kudeatzen ari gara. Bestalde, sektore politikan (parte-hartze soziopolitikoan, osasunean, hezkuntzan...) lan egin behar da. Horretarako, Berdintasunaren aldeko IV. Plana egin dugu, non jarduteko proposamen zehatzak egin dizkiogun Administrazioari. Eta hirugarrenik, diskriminazioen aurrean emakumeen eskubideak bermatuko dituen organoa eratu dugu, eta hor dago Berdintasunerako Defentsoria. Hiru arlo horiek dira aurrera egin behar dutenak. Aurrera egiteko, baina, oinarriak behar dira, eta Emakundek horretan aintzindaria izan behar du.

Indarkeriaren aurka Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan dauden hiru epaitegiak gainezka daude. Gehiago ireki beharko lirateke?

Epaitegiak gainezka egoteak eskatzen duena da epaitegi gehiago irekitzea. Baina tentu handiz hartu behar dira erabakiak, bidean neurri horien emaitzak ebaluatu eta akatsak zuzendu ahal izateko. Hori esanda ere, emakumeen alde abian jartzen diren neurri guztiak garrantzitsuak direla uste dut, indarkeriaren aurka pausoak ematen direlako, eta hori delako une honetan dugun arazorik larriena.

Tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeak laguntzeko zerbitzu asko daude martxan: Udaletan, Aldundietan, Gobernuan... Horrek kontrako efektua sor dezake eta nahasmena eragin emakumeek nora jo behar duten erabakitzerakoan?

Bai, mahai gainean dugun arazo bat da hori. Gure ustez garrantzitsua da erakunde arteko koordinazioa bermatzea, eta alde horretatik Emakundek gogor lan egin du koordinazio horren alde. Garrantzitsua da koordinazio hori egotea arazoak non dauden jakin dezagun. Izan ere, tratu txarrak jasotzen dituen emakume batek erakundearen laguntza



pertsonen heziketa funtsezkoa da, askatasuna eta errespetuan oinarritutako heziketa ezinbestekoa da



koordinatua jaso beharko luke, eta ez luke zertan leku batetik bestera joan laguntza eske. Hala ere, nahasmenaren arriskuarekin batera, emakumeek alternatiba desberdinak hautatzeko parada izatea ere bermatu behar da. Emakume batentzat egokiena izan daiteke laguntza eskainiko dion erakundea gertu iza-



emakumeen iraultza integrala den bakarra da, bide baketsuak erabili duen bakarra da

tea, baina beste kasu batzuetan, egokiena izan daiteke ez hain gertu egotea. Afera ez da zenbat zerbitzu dauden, indarkeriaren aurkako zerbitzuen arteko lankidetzat bermatzea baizik.

Galdera potoloa da, baina ezinbestean egin behar dizudana: Nola amaitu daiteke emakumeen aurkako indarkeriarekin?

Oso galdera zaila da, baina erantzuna oso samurra da: emakumeen aurkako indarkeriarekin amaituko dugu gizon eta emakumeen arteko desberdintasunarekin amaitzen dugunean. Bi sexuen

arteko desberdintasuna dagoen bitartean oso zaila izango da indarkeriarekin amaitzea. Emakumeen aurkako indarkeria desberdintasun prozesuaren azken muturra baita. Gizartean hierarkia este-reotipoei eusten diegun bitartean, tratutxarren haztegia sortzen egongo gara. Momentuz, biktimekiko arreta ari gara lantzen, eta adabakiak jartzen ari gaitzaizkio arazoari. Baina, indarkeria agertu baino lehenago bizitzan egon diren prozesuek eman behar dizkigute aldaketarako gakoak. Ildo horretan, pertsonen heziketa funtsezkoa da, askatasuna eta errespetuan oinarritutako heziketa ezinbestekoa da. Kultura hori sortu behar da, orduan bakarrik nabarrituko ditugulako aldaketak.

Eta noiz gertatuko da hori?

Tamalez, ahaleginak egin arren, egoera horretatik oso urrun gaude, eta oraindik

antzinako kultura baten ondorioak jasotzen ari gara. Zaila da gizarte ohiturak aldatzea. Baina ni baikorra naiz, gure aitonak zeharo desberdinak zirelako gaurko gizonen aldean, eta gure semeak are eta desberdinagoak direlako. Emakumeekin gauza bera gertatzen da. Elkarren segidan doan lan etengabea da. Eta lan horrek ez du etenik bereziki historian egon diren emakumeek egindako ahaleginei esker. Emakumeen iraultza integrala den bakarra da, bide bake-tsua erabili duen bakarra da. Pozgarria da ondare hori izatea, egiazko borroka bat delako, eta borroka horrek ahalbide-tuko digulako gizarte justuago batean bizitzea, ez baitago gizarte demokratikorik desberdintasunean oinarritzen dena. Gizarte honetako erronka nagusia da elkar zaintzen ikastea. Lan horretan emakumeek asko dugu irakasteko, eta gizonek asko dute ikasteko. ■



Eguzkitako betaurreko guztiak,
zure itxura eta
begiak babesteko.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS



Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

CHANEL PRADA Ray-Ban arnette Silhouette Calvin Klein FENDI VOGUE Pepe Jeans bonardi OAKLEY GIORGIO ARMANI

CRISTINA APARICIO

"Bidegabekeriak gorroto ditut, bertatik irteten baitira beste gaitz guztiak"

Cristina, Publizitate eta Harreman Publikoetako ikaslea da. Azterketak dagoeneko gainean dituela gurekin solasean aritzeko tarte atera du, eta aisialdirako denboraz ez ahaztea garrantzitsutzat jotzen duela azaldu digu. Betiko lagunekin egotea oso gustuko du eta beste gauza askoren artean, Euskal Dantzetan aritzea du zaletasun. 10 urte daramatza Eguzki Lore dantza taldean eta orain oso emozionaturik daudela aitortu digu, Galiziara baitoaz dantza jaialdi batean gonbidatu gisa parte hartzera.

t. ainhua arriaga & naraa cuesta
a. edorta sanz

Duzun biziorik handiena? Jatea. Besterik ez dizuet kontatuko (barre artean).

Janari bat? Patata tortilla, entsalada,...

Bertuterik? Lagunen laguna naizela uste dut.

Akatsik? Nahiko alferra naiz, burugogorra, despistatua, hasten banaiz... kar-kar.

Zer baloratzen duzu gehien zuregan?

Eta gainontzekoengan? Pertsona alaia naizela uste dut, eta zerbait gustatzen zaidanean azkeneraino eramaten dudala. Jende tolerantia eta alaia dut gogoko.

Zure gorputzaren atalik politena? Nire begiak gustatzen zaizkit.

Fisikoki zerk erakartzen zaitu gehien gainontzekoengan? Nire ustez, pertsona bat bere gorputzarekin gustura badago besteengan zerbait islatuko du. Bakoitzak bere ezaugarri erakargarriak izaten ditu.

Hala ere, ni hortzetan fijatu egiten naiz.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Lasai eta pozik bizitzea.

Telebista saio bat? 'Mujeres desesperadas', 'Anatomía de Grey' eta horrelako kulebroiak jarraitzen ditut. 'Documentos TV'ren dokumentalak ere ditut gustuko, eta euskaraz, Mihiluze saioa ikusi ohi dut.

Beldurrik? Minari, bai emozionalari eta bai fisikoari ere.

Oporrak non eta zertarako? Urtean zehar bidaia handi bat edo ahal izanez gero bi egin ohi ditut. Aurrean adibidez, Dublinean egon naiz eta irailean Budapest, Viena eta Bratislava ezagutu nituen. Bidaia ideala? Nire mutilarekin Argentinara.

Liburu bat? Jose Luis Sampedroren 'La sonrisa etrusca'.

Zineman ikusi duzun azken filma? Izugarri gustatzen zait zinea. Ikusi dudana azken filma 'Blood Diamond' izan da, oso gogorra iruditut zait, baina ona.

Zein motatako musika entzuten duzu?

Rocka entzun ohi dut, baina jazz eta funkya ere gustatzen zaizkit.

Zer da Gasteiz duen onena? Eta txarrena? Txikia izateak ematen dion giro ona. Txarrena, aspergarria izatera iristen dela, azken finean beti da berdina: jende bera, leku berberak eta eskaintza kultural berdinak.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Ez dut uste, ez. Alde zaharrean agian. Baina nire auzoan okindegian ere ez dute euskaraz jakingo.

Amets bat? Gustuko dudana zerbaitetan lan egitea eta pozik bizitzea.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Gaur eguna. Iragana pasatu da eta etorkizunean zer etorriko den ez dakigunez hobeto ez kezkatzea.

Zer eskatzen du herriak? Nik uste herri-tarrok lasai bizi nahi dugula. Gero bakoitzak ikusiko du zeintzuk diren bere eskakizunak. Ondo bizitzeko lasaitasuna ezin bestekoa da ■

UDA GARAIA, GIRO ALAIA

Uda heltzear dago. Eguzki izpien beroa, arropa arinak, herrietako festak, gau giroa... eta oporrak. Gehienentzat uda urtarorik onena bilakatzen dute oporrek. Izan ere, egunerokotasunetik irteteko aukera paregabea eskaintzen dute. Bestelako lekuak, kulturak, jendea, usainak, koloreak... ezagutzeko bidaia ezinbestekoa da. Kalera irten gara aurtengo udako oporretan gasteiztarrek zer-nolako planak dituzten ezagutzera. Hala ere, udan zehar lan egingo dutenei ere, disfruta dezatela opa diegu.

t./a. nara cuesta & ainhoa arriaga

Bidaia gustuko duzu?

Uda honetarako plan berezirik ba al daukazu?

Zein izango litzateke zuretzako bidaia ideala?

Maria Martinez, kontularia

- Bidaia oso gustuko dut. Eguraldi ona aprobetxatuz udan egiten ditut bidaia.
- Duela bi aste hartu nituen Irlandara joateko txartelak. Bertan bost egun pasako ditut lagunekin.
- Europar zehar bidaia luzea egitea izango litzateke niretzat ideala. Inter-Rail moduko bat eginez edo bestelako garraiabidean, baina Europar zehar.



Javier Garcia, Batxillergoko ikaslea

- Bai, asko gustatzen bidaia, gehienbat Estatutik kanpo irteten naizenean.
- Uztailan lanean ibiliko naiz, eta horren ostean, abuztuan, Estatu Batuetara joango naiz; familia baten etxean egongo naiz ingelesa ikasten.
- Nire lagunekin, agian, Parisera edo horrelako hiri handi batera aste-bete igarotzera.

Alejandra Vicente, ikaslea

- Bidaia asko gustatzen zait. Udako oporrak erabili ohi ditut horretarako.
- Uztailan, bi aste emango ditut Santiago Bidea egiten eskolako lagunekin. Ondoren, Estatu Batuetara joango naiz, azkenean urteetan egin dudako modu berean. Ingelesa jada ikasi nuen, baina ia egondako familia bisitatzera joango naiz honakoan.
- Nire bidaia ideala... lagunekin izango litzateke, eta agian Kubara.



idazleak

URTEURRENA

t. xabier olaso




Birramamaren ehun eta batgarren urtebetetzea eta GEU aldizkariaren hamabosgarren urteurrena ospatzeko bildu ginen osabarenean. Aspaldiko partez, hantxe geunden etxeko guztiok, egongelako mahaiaren inguruan gaueko hamabiak noiz joko zain, ospakizunaren unerik kilikagarriena erretratatzeko Polaroid-ak tentuz atontzen genituen bitartean. Birramama lasai zegoen, bere kulunkaulkian, GEU aldizkaria irakurri eta irakurri.

Ordua iritsita, tartako kandelatxo guztiak banan-banan piztu eta egongelako argiak itzaltzeaz batera, "zorionak zuri" kantatzen hasi ginen aho batez.

Birramamak GEU aldizkaria galtzarbean hartuta, sagarrezko tartara doi-doi inguratu, ezpainak bildu eta, arnasalditxo bat egindakoan, kandlei putz egin zien, hauspo zahar baten indar ahituaz putz egin ere. Berriro ere entseiatu zen, sendago oraingoan, sasio-koa eta setatia baita gure birramama. Eta hirugarrenez ere ekin zion, putz eta putz. Eta laugarrenez. Eta bosgarrenez. Baina ahaleginak ahalegin, kandela guztietan bat gelditu zen itzaltzeke, dir-dir.

Eta ez bat ez bi, argitzalean, haur bilakatu zen gure birramama, urtebetekoa. Eta haur eder eta irribarretsu hark galtzarbean zuen aldizkaria eskuetan hartuta lehendabiziko hitzak lardaskatu zituen: gigi, gugu, gogo, ga, geu, geu, geu,...



araba euskaraz geugaia

argantz on

ekainak 17




Argantz on Ikastolari aurtengo Araba Euskaraz antolatzea egokitu zaio. Trebiñu enklabean dago, izen bereko herrian kokatuta, Arabako bihotzean, hain zuzen ere. Ekainaren 17an euskaraz mintzatuko da Argantz on, eta ozen abestuko du Trebiñu Araba dela, Trebiñu euskalduna dela.

ARGANTZ ON ERE EUSKARAZ MINTZO DA



gareharen jostun

argantz on



materiala

-araba-euskaraz.org

-sugar dendan (pintore kalea)

laguntza

araba euskaraz egunean bertan, eta aurretik eta ostean egin beharreko muntaietan laguntzeko prest dagoenari, esker mila emateaz gain, telefono honetara dei dezala eskatzen diote:

argantz on ikastola: 945 373185

t. naroa cuesta

a. edorta sanz

2003ko urrian jaio zen Argantzón Ikastola bertako haurrei euskaraz ikasteko aukera emanez. Ikastolak izan duen harrera ona eta hedapenak eraikin berri bat ezinbestez eskatzen zuten eta ikasturte honen hasieran estreinatu berri dute. Araba Euskaraz 2007 antolatzea lan mardula izan bada ere, bidean aurkitutako oztopoek ekarritako arazo ekonomikoek aurre egiteko laguntza izango da. "Trebiñu Araba delako, euskalduna delako, Argantzón Ikastola dagoelako eta egongo delako... Ekainaren 17an Araba Euskaraz jaiarekin bat egin dezagun. Izan gaitezen 'garenaren jostun'!".

Garenaren jostun

Urtebete daramate Argantzón Ikastolako irakasle eta gurasoek ikastolen jaia antolatzen. Ekaitz Lotina, bertako irakaslearen ustez, beste inoiz baino jende gutxiago aritu da urtean zehar Araba Euskaraz jaia prestatzen. "Askonahi handiegirik gabe egindako lana izan bada ere, emaitza oparoak emango dituelakoan gaude". 'Garenaren jostun' lelopean iritzi, sentimendu... ugari biltzen dira: Garena, arabarrok euskaldunak garelako eta jostun lanetan adoretu dihardugu, "behingoz euskararen bitartez Trebiñu Arabari josia gera dadin". Ideia bera islatzen da Karmele Jaiok idatzi eta Betagarri taldeak grabatutako Araba Euskaraz 07'rako abestian.

Ekainaren 17an, Araba Euskaraz-en bitartez, Trebiñu gero eta oihartzun ozenagoa hartzen ari den euskararen aldeko mugimenduari bultzada eman nahi zaio. Euskararenganako kontzientzia hedatzearekin batera, Trebiñuk bere etorkizunaren gainean erabakitzeke duen eskubidea ere aldarrikatuko da ikastolen jaian. Burgos-en menpe egoteak jartzen dizkio oztopo gehien euskarari Trebiñu. Hala ere, muga guztien gainetik euskararen normalizazio prozesuari jada ekin zitzaion Argantzónen. Oraingoan, sustrai horiek egonkortzea eta proiektu honi iraunkortasuna ematea da xedea.

Argantzón Ikastola, txikia, berria, berezia... munduan bakarra

Argantzón Ikastolak ez dauka munduan parekorik. Duda barik, bizirauteko beste inork baino zailtasun gehiago dauzka. Burgoseko Administraziopeko lurraldean kokaturik, haurrei euskaraz ikasteko aukera ematea izan zen ikastolaren sorreraren helbururik behinena. 2003ko urriaren 27an hasi ziren klaseak, baina aurretik egindako lana ezinbestekoa izan zen. 2001ean Argantzónen gauzatu Araba Euskaraz egitasmo honen lehenengo harri sinbolikoa izan bazen ere, besteak beste, Ekaitz Lotina dugu proiektu honek argia ikus zezan gogotsu eta ilusioz beterik hilabetetan lanean aritutako irakasleetako bat. "Haur hezkuntzan zeuden gabezia larrienak, eta horretan hasi ginen lanean". Ekaitz etxetik galdezka ibili zen, kartelak jarri zituen... Argantzongo eta inguruko herrietako gurasoek proiektuaren berri jakin zezaten. Harrera ona izan zuen proposamenak, eta lehenengo ikasturtean 11 ikasle eta 2 irakasle aritu ziren ikastolan. "Urte horretan bertan ikasturtea hasita zegoela, beste hiru ikasle gehitu zitzaizkigun", dio Ekaitz Lotinak.

Herrian urtetan egondako eskola haurrik gabe geratu izanak laguntza ezin hobea eskaini zien. Izan ere, Udalak baimenak eskatu eta hurrengo urtean eraikin horretan ekin zioten klaseak emateari. Argantzón Ikastola abian zen.

Eguno egoera oso bestelakoa da. 39 ikasle, 5 irakasle (horietako bat ingeleseko irakaslea delarik) eta jantokiko begiralea ere badago bertan. "Ikastolan gaudenon arteko harremana oso gertukoa da", dio bertako irakasle Ixiar Mateosek.

Bidean aurkitutako oztopoak

Trebiñu ikastola bat beharrezkoa zela ikusi zuen Ikastolen Elkartek, baina bidean oztopoak eta arazoak aurrikusi ere egin zituen. Ikastola honek bizi duen egoera berezi horrek finantzabide arazo ugari ekarri ditu berekin. 2006ko irailean eraikin

letra: karmele jaio / musika: betagarri

hizkuntza zaharra neska mutilen ahoetan
gure ikastola argantzónen bihotzean
orratza eta haria hartuta
josi nahi ditugu denak
garenaren jostunak gara
trebiñotarrak!

galdetu didate
nola den posible
hizkuntza bat herrira josi
galdetu didate
nola den posible
argantzónen euskaraz bizi

garenaren jostun euskara eta argantzón
garenaren jostun batuta nahi ditugu

josi ditzagun gure hizkuntza eta herria
hizkuntza gabe herririk nekez dago eta
euskarak josten duelako
trebiñu arabara
euskara gure taupada da
entzun ezazu!

galdetu didate
nola den posible
hizkuntza bat herrira josi
galdetu didate
nola den posible
argantzónen euskaraz bizi

garenaren jostun euskara eta argantzón
garenaren jostun batuta nahi ditugu

garenaren jostun euskara eta argantzón
garenaren jostun batuta nahi ditugu

berria ireki bazuten ere, ordaintzeke dago. Ordainketa horri aurre egitea da aurtengo Araba Euskaraz-en helburuetako bat.

Gainera, Hezkuntza Sailetik Ikastoletara bideratu ohi diren diru laguntzak ez dira era normalizatu batean Trebiñura heltzen. Bada, Burgoseko administrazioak, Eusko Jaurlaritzak eta Trebiñuko Udalen artean sinatutako hitzarmenen aurkako errekurtsioa jarri du Audientzia Nazionalean, eta baita irabazi ere.

Bestetik, Haur Hezkuntza bukatu ostean haurrek beste ikastola bat aukeratzeko orduan izan ditzaketen zailtasunak aipatu beharra dago. Derrigorrezko Hezkuntza Gasteizen egin behar izango dute Trebiñu ikasitako haurrek euskarari heldu nahi



badiote. Orduan ere zailtasunak aurki ditzakete, izan ere, ez baitaukate ikastola batean sarrera guztiz ziurtatuta. Aurten irtengo dira Argantzonen Ikastolan lehen urtean hasitakoak, eta orduan ikusiko da benetako trabak eta oztopoak zeintzuk diren.

Egonkortasuna eta jarraikortasunaren bila

Trebiñuko haurrei euskaraz ikasteko aukera ematea zen helburu nagusia, eta lortu dute. Argantzonen Ikastolak lau urte beteko ditu aurten, baina etorkizunean egonkortasuna eta jarraikortasuna bilatzeari ezinbestekoa zaie. Baliabide materialen aldetik bideratuta dute gerokoa baina, Ekaitzen esanetan "finantzaketa arazoa larria da, eta horretan daude zalantza gehienak".

Ikastolan 6 urtera bitarteko haurrak baino ez daude, Haur Hezkuntza soilik eskaintzen baita. Derrigorrezko Hezkuntza irakasteko orduan ezartzen diren traba legalak asko handitzen dira. "Oraingoz ezinezkoa da, agintarien aldetik horrelako proposamen bat aurrera eramateko ausardia funtsezkoa baita", dio Ekaitzek.

Trebiñu gero eta euskaldunagoa

Historiak dioenaren arabera, XIX. mendearen hasieran euskararen hegoaldeko muga Araban Argantzonen kokaturik bazegoen ere, egun Trebiñu enklabeke herrietan ez dago euskaldun zaharrik, eta euskara kalean ez da apenas entzuten. Baina Argantzonen Ikastolak ahalbidetu du bertako umeak euskalduntzea, herritik kanpo atera barik. Gaur egun euskaldun berrien eta haurren ahotsetan baino ezin da euskararen izpirik sumatu. Baina lorpen handiak ere pausoz pauso eman ohi dira. Gutxi batzuen ekimen ausart honek laguntza eskasa eta traba gehiegi aurkitu baditu ere, Trebiñu euskaratzeko urratsak ematen ari dira, eta ereindako sustraia fruituak ematen hasia da jada. Izan ere, ikastola ireki zenetik, gero eta guraso gehiago euskaltegiara joateko kemena izan baitute. "Euskararekiko jarrera positiboa adierazteaz gain, euren seme-alabek euskaraz ikasi eta euskaldunak izatea nahi dute", diosku Ixiarrek.

2003ko urrian jaio zen argantzonen ikastola trebiñuko haurrei euskaraz ikasteko aukera emanez

trebiñun gero eta oihartzun ozenagoa hartzen ari den euskararen aldeko mugimenduari bultzada eman nahi zaio

argantzonen ikastolak 4 urte beteko ditu aurten, baina etorkizunean egonkortasuna eta jarraikortasuna bilatzeari ezinbestekoa zaie

XIX. mendearen hasieran euskararen hegoaldeko muga araban argantzonen kokaturik zegoen

2006ko irailean eraikin berria ireki bazuten ere, ordaintzeke dago. ordainketa horri aurre egitea da aurtengo araba euskaraz-en helburuetako bat

ZAKILAREN HARROTASUNA

TESTUA: LARRAITZ ARANDO, GAZTEZULOKO SEXOLOGOA

**MUTILEK, NESKEKIN ALDERATUTA, BESTELAKO HARREMANA IZATEN DUTE BERAIEK
GENITALEKIN, ORO HAR. TXIKITATIK IKASI DUTE OSO GARRANTZITSUA DELA ATAL HORI.**

Hala ere, Euskal Herrian eta Europan indarrean dauden sexualitate ereduak gizonezkoengan ere ondorio bortitzak dituzte: tentetzearen inguruko kezkak, sexu jolasetarako desira zalantzak, tamainarekin gorabeherak... Zakilarengan espektatiba altuegiak sortu dira. Oraingoan, ariketa ero/beroen bitartez, gure sinesmenak eta ideiak zirikatzen saiatuko gara.

Faloak, izen franko

Nola esaten diozu mutilen hankatar-tekoari? Pitito, zakila, txominoa, paketea, pitilina... Gorputzeko beste atal batzuek ez dute hainbeste deitura. Baliteke, hainbeste izendapenena, sintoma kezkagarria izatea; zuze-nean zakilaz garbi hitz egiteko zailta-

suna adieraz dezake. Bere izenez deitzeak komunikazioa erraztuko luke.

Zakilaren edertasuna

Begiak itxi. Gogoratu telebistan edo aldizkarietan ikusi dituzun zakil batzuk. Nolakoak dira? Berriz ere begiak itxi eta etxean, sexu jolasetan, hondartzan... ikusi dituzun zakilak gogoratu. Berdinak al dira?

Komunikabideetan zakil berdintsuak ikusten ditugu beti. Errealitatean zakil guztiak ezberdinak dira, ordea: txikiak, handiak, iletsuak, zuriak, lodiak, fimosidunak... Zakil eredu bakarra begietatik sartu digutenez, zakil askotan edertasuna ikustea kosta egiten zaigu.

Ondorioa: mutil asko kezkatuta dau-

de zakilaren itxurarengatik. Askotan, zakila erakusteko beldurra eta lotsa izaten dute. Gogoratu, zakil guztiak ezberdinak izan arren, denak izan daitezkeela ederrak.

Beti prest!

Idatzi, papertxo batean, gizonezko batek izan ditzakeen bost behar. Bost behar horien artean, sexu jolasak edo larrutan egitea sartu al duzu? Lasai, ez da arraroa. Jasotako ideien arabera, badirudi mutil guztiak beti sexu gosez daudela. Badakigu mutil guztiak ez direla berdinak, eta denek ez dutela sexu praktikak ulertzeko eta bizitzeko era bera. Beti prest, zertarako?

Ondorioa: sexu jolasak era zabalagoan ulertzen dituzten mutil askok jendeak ez dituela ulertzen sentitzen dute, eta beraien desira beste batzuen baino motelagoa dela. Ez ahaztu sexu jolasetarako desira ezin dela praktika bakarrarekin neurtu.


Lukainka edo txistorra

Tamaina plazerarekin lotzeko joera okerra dagoenez, asko zakilaren tamainarekin kezkatuta daude.

Ondorioa: zakilaren tamaina aldatzeko metodoak eskatzen jarraitzen du jendeak. Mutil horiek, askotan, duda egiten dute haien zakila gai ote den gozamenaren eragiteko. Norberak sinesen duen gaitasuna izan dezake zakilak. Gakoa buruan dago. Zakila den bezala onartzea lagungarria izan daiteke; haren gaitasunak nabarmenduz eta probetxua ateraz.

Noiz isuri?

Bikote bat sexu jolasetan ari denean, zein da isurtzeko momenturik egokiena? Bikotekidearekin batera isur-



tzea edo orgasmora heltzea modan jarri da. Askotan, bikotekidearen orgasmoaren zain, eutsi egiten zaio, ez isurtzeko, edo bestela, isuriketa azkartzeko ahalegina egiten da. Ondorioa: Mutil asko oso larrituta egoten dira, bikotekidearekin batera ez dutelako isurtzen, bikotekidea asetzeko betarik ez dutelako izaten... Onena nor bere gozamenaz ardura-tzea da. Isuri gabe plazera jasotzen eta ematen jarrai dezakezu; isuri ostean ere plazera eman dezakezu.

Ez tentetzearen drama Zein da mutil bat kitzikatuta dagoen seinalea? Zakila tentetzean erantzun-go luke askok. Baina, mutil guztiak ezberdin sexuatuak dira, eta beraz, kitzikapenaren aurrean, gorputz guztiek ez dute berdin erantzuten. Ondorioa: zakila tentetzen ez zaielako, mutil asko etsituta ibiltzen dira. Horrek autoestimuan eragin zuzena izaten du sarri, eta askok ez dute sexu harremanez ezer jakin nahi. Gorputzeko beste atal batzuetan ere isla du kitzikapenak; arnasketa, bihotz taupada azkarragoak... Zure zakila zaindu eta maita ezazu! Zoragarria baita. Ez izan hain zorrotza berarekin.



NOTICIAS TALDEAK UTZITA

GOTZAINAREN AHOLKUAK

Fernando Sebastian Iruñeko gotzainaren arabera, Espainiako eskuin muturreko alderdiak —Falange, esaterako— katolikoek babesteko modukoak dira. Iazko urriaren 12an, Hispanitatearen Egunean, Guardia Zibilak omendu egin zuen Sebastian; omenaldia hartakoa da argazkia.

OIHANE PEREAK JARRITAKO BERTSOAK

TRIKORNIO BAT "CUM LAUDE"
IHAUTERITAN AL GAUDE?
GUARDIA ZIBILEN PASARELA DU
GOTZAIK ALDARE.
ARDO KALIZAREN JABE
EGIN ETA HALA FEDE!
BATZUK KARETA KENDÜ OHI DUTE
DISIMULO GABE

GORA ESPAINIA, GORA!
ELIZAREN AZKEN MODA
ALDE EDERRA NAHIZ ETA EGON
BOTOTIK BOTORA
IZOZTUTAKO DENBORA
EKARTZEN DUZU GOGORA
FRANCO HILOBITIK ZURI BEGIRA
POZIK EGONGO DA!

gaztezulo.com

sexua·gaupasa·egun pasa·musika·sarezulo·hitzordua·zikina·ikasi bai, baina·mundua·fotografikoak·literatura·teilaupeta·protagonistak·agenda·fotomaton·salerosketak·albiste bitxiak·etxeok·komikiak





maiatzak 11. geu-ren jaialdi-galaren eguna. 20:45ak eta artiumeko plaza aretoa dotore jantzita, bertara animatuko diren lagunak gogoz hartzeko zain. artista guztiak hasteko irrikitan. geuren 15. urteurreneko irudia eszenatokiaren atzeko horman jarrita. proiektioetarako erabiliko diren plasma telebistak sapaetik zintzilik irudiak botatzen noiz hasiko zain. kalean giro beroa eta oraindik ilundu gabe. plaza aretoko atzeko ate guztiak irekita esparruaren tamaina eta aukerak bikoiztuz: lagun gehiago



sartzeko parada eta barruan zein kanpoan egon ahal izatea. luntxa plazan paratutako mahai luze urdin batean jarrita: txapelako bernardo cor-tazarrek egindako askotariko pintxoak, gaziak zein gozoak; hara bada! enpresak ekarritako aduna etxeko urteko ardoa (gero jakin genuen ardo honek europa mailan zilarra irabazi duela sariketa batean), sagar-doa eta urarekin batera. ondoan artium-eko tabernak (cube) jarritako barra, besteak beste, garagardo freskoa eta konbinatuak eskatu ahal



izateko. eta horren guztiaren ondoan eta artean, ibon saenz de olazagoi-tia 'isdeo', gaua jantziko duen proiektzioa jaurtitzeko prest. hitz eta iru-dien arteko jolasak: geu-ren jarduera azaltzen duten hitzak; zuzeneko irudiak; iñigo sarasolaren animazioak... fintasuna nonahi.

20:55. ateak irekitzen dira eta denetiko jendea hasten da sartzen. asko-tarikoak, ezagunak eta ez hain ezagunak, gazteak, ez hain gazteak, hel-





duak, ume bat edo beste... han eta hemengo ordezkariak (elkarteak, enpresak, gizarte mugimendua, norbanakoak...), lagunak, familia, koadri-lak... 450 lagun orora. pantailetan geu-ren ongietorri mezua ageri da.

20:10. ibonek kunkaren sketxa proiektatzen du 4 plasmatan. jaia hasiera doa. kunkakoak ezin izan dira etorri zita baitute tafallan, eta bere egune-an agur-sketxa grabatzea erabaki genuen: "zorianak zuri..." abestu eta

topa egin ostean, geu-ren ibilbidea eta izaerari birpasa egiten diote. jarraian, tomas san miguelen musikaren magiaren txanda. indarrez ateratzen dira, eta indar hori publikoak jasoko du, aretoan oso giro beroa sortuz hasiera-hasieratik. akordeoiaren soinu sendoak bezain leunak, maika eta sara txalapartarien indar eta erritmo hegalarrien ondoan, soinu elektronikoz eta fintasunez beteriko perkusioaz lagunduta. txalapartariak oinutzik, euren gorputzak txalapartaren

makilak bailiran, zorua laztanduz. kontzertu osoa, fereka bat gorputz eta arimarako.

ostean idazleak. ahots zalaparten artean gerardo markuleta eszena-tokira igotzen da. pantailek "ez dut sekula ondo jakin..." diote. mar-kuletak ez du erraz, atzeko murmurioagatik, baina aurrekoek arretari eustea lortzen du. ez da gutxi. hunkigarria bere poesia! ostean, kar-mele jaio. "zikina dela arrosa kolorea. horrela esan zenidan" zioten

telebistek. berak ere ahots sendoz atzekoen etenik gabeko bla-bla menperatzea erdiesten du. pozik dago, irribartsu. hausnarketa inter-resgarria bere testua. hirugarren, patxi zubizarreta: "floridako semo-foroa 17" aurreko ikusleak erne-erne dauden arren, atzekoak ez dira ixiltzen. patxi sekulako esfortzua egingo du irakurketari eusteko, aurrekoen omenez. eta azkenean lortuko du ikusleen arreta, bere



testuaren berdetasunaren bidez. eta azkenik, idazleen tarteari amaiera emateko, txiki tostado rapsodaren txanda. paperik gabe. irakurri gabe. "amodiaren amorantea" amaia lasa poetaren poesia. indarrez errezitatuko du. dotore. amaia.

jarraian, gorlizetik etorritako all jazz era talde gaztea. ustekabea bertan bildutako askorentzat. jendea jada bero gorputza askatasunez



mugitzen hasiko da. giroa gero eta beroago. giro polita. atsegina. funkia nagusi. artistak dena ematen ari dira, bai eta publikoa ere. ibonek ez du etetik hartuko gaua irudien bitartez janzte-lan horretan. gustura sumatzen da. bere ondoan duen pintxo platera ez du dastatu oraindik. gero. lana amaitutakoan. gero eta giro beroagoa barruan, kalean...



euskaldunak, bidean daudenak, erdaldunak... askotarikoak. helburua lortuta. inoiz egitasmoan parte hartu dutenak, aldizkariaren iragarleak, geu-rekin harreman bat edo beste izan dutenak, izan ez dutenak, geu duela gutxi ezagutu dutenak, unean bertan ezagutu dutenak, duela asko ezagutzen dutenak, gasteizko gizartearen ordezkariak... denetikoak. geu pozik.

berotasun horretan kahinaren txanda. sentsualitatez beteriko unea. karidadeko benta



bozgorailuetan hasteko. kahinak ikusleak bereganatzea lortzen du. gatibu, bigarren (eskerrik asko hala bedi-ko linusi, besteak beste, kantu hau moldatzen egindako lan onagatik). jendea are gehiago berotzen da. jendeak gehiago eskatzen du, baina erlojuak ezetz dio. ikusleak gogoz. eta une horretan, hor dator soinu dantzagarri bateriko makalaren txanda! kanta bat eta guzti eskaini zion geu-ri (mila esker, makala! izugarri detaile polita). jendea oso pozik, dantza eta dantza. makala ere bai, kanta eta dantza. giroa gero eta beroagoa. 00:30ak erlojuak. amaieraren ordua. guztiok gehiago nahi baina ordutegia mugatuta dago. pantailek agur eta esker onen mezua dakarte. pixkanaka jendea desagertuz doa. dena jasotzeko unea. gau polita benetan.

eskerrik asko geu-rengan sinetsi duzuenoi eta beste bat arte.



batbitan

THE BRONTËS

BIDEAN AURRERA EGINEZ, THE BRONTËS TALDEAREN HIRUGARREN LANA KALEAN

www.thebrontes.tk



The Brontës hirukote gasteiztarraren hirugarren lana 'Ways to Nowhere' dago kalean jadanik. Orain dela 12 urte jaio zen pop-rock taldeak oraingo honetan ere bere estiloari eutsi badio ere, bilduman kutsu gogorragoa sumatzen dela aitortzen dute taldekideek. Bere ibilbideari birpasa bat emateko eta lan berriaren xehetasunak ezagutzeko asmoz ere mintzatu da GEU The Brontës-ekin.

t. saioa fdz de arangiz**a. edorta sanz**

1995. urtean Iñaki Acedo (bateria), Raul Rama (abeslari, gitarra eta konpositorea) eta Iñaki Calzada (baxua) hirukote gaztea elkartu eta The Brontës (Ingalaterrako hiru ahizpa idazleei erreferentzia egiten dien izena) musika taldeko lehen akordeak jo zituzten. Musika munduan murgiltzea zaila bada ere, talde gasteiztarrek azkar egin zuen bidea eta 1998an 'First' izeneko maketak irratiri batek antolatutako 'Imaginarock' lehiaketa irabazi zuen. Harrez geroztik, Astro diskoetxearekin fitxatu zuten, orain arte argitara eman dituzten hiru lanak kaleratu dituen, hain zuzen, 'Mountain', 'Mary & Jim' eta 'Ways to nowhere', azkena. Guztietan hirukotearen berezko estiloa mantentzen da, pop-rock musika ingelesez idatzitako kantuz hornituta. "Beharbada azken diskoa aurrekoak baino gogorragoa, zikinagoa da, halarik ere, ez dugu garapen berezirik izan gure musikan. Garapenik egon bada berezko zerbait izan da, naturala", argitzen du Iñaki Acedok. Taldearen 12 urteko ibilaldian soilik 3 bilduma kaleratzeak honetan eragina izan duela ere aitortzen du hirukoteak. "Arazo pertsonalak zein diskoetxearen arazoak direla medio, ez ditugu lan gehiago atera eta beharbada horregatik ez dugu halako garapen bat izan gure musikan", diosku Iñaki Calzadak.

Egungo Dinosaur Jr., Neil Young edo Crazy Horse musika taldeak gustuko badi-tuzte ere, hirurek aitortzen dute batez ere iraganeko taldeen eta batez ere, 60. eta 70. hamarkaden musikaren eragina jaso duela taldeak, besteak beste, The Beatles edo Jimi Hendrix Experience taldeena, esaterako.

Otsailean kaleratu zenuten zuen azken diskoa 'Ways to nowhere'. Nolako izan zen lanaren grabazioa?

Grabazioa 2005ean gauzatu genuen Cadizen, aurreko diskoa bezala, baina diskoetxearen arazoak direla bide ez da orain arte kaleratu. Disko berria 12 abes-

tiz osatuta dago, izan ere, bertan egon ginen bi asteetan 22 abesti grabatu eta nahastu genituen, benetako errekorra! Hortaz, gainontzeko abestiekin hementik gutxira disko berria kaleratzea espero dugu. Oraingoan ere produktorea Paco Lobo izan da, hala ere, diskoak zeharo ezberdinak dira. Aurreko lanekin alderatuz, 'Ways to nowhere' laneko abestiak ez dira hain homogeneousak. Hauek ekoizpen gogorragoa eskatzen zuten eta hortaz, Pacok ekoizpenean kanten gogortasun hau oso ondo irudikatzen gai izan zen. Gehiago sartu du eskua oraingoan, bere eragina nabaria-

myspace bezalako web-guneak asmakizun onak dira musika taldeentzat, euren musika ezagutzera emateko

goa da eta horregatik diskoak moldaketa gehiago dauzka.

'Mary & Jim' aurreko lanean, bi pertsonaia hauen istorioak kontatzen zituzten abestiek. Lan berrian zertaz hitz egiten dute kantek?

Abesti bakoitzak istorio bat kontatzen du, baina hauek modu anitzetan interpreta daitezke. Bildumaren izenburuari erreparatuz, 'Ways to nowhere', bizitzaren bideei egiten zaie erreferentzia. Askotan guk ez ditugu bide hauek aukatzen eta beraz, zure buruari galdetzen diozu ea zer gerta zatekeen beste bide bat hartuz gero. Dena den, jende askok komentatu bezala, abestiek ez dute kutsu ezkorrik. Gure ustez jakin-nahia besterik ez da.

Lana kaleratu eta gero, ondorengo urratsa promozioa, kontzertuak, elkarrizketak... egitea da. Nola egiten diozue aurre honi guztiari?

Orairi hasi gara gure lana irratian eta



interneten entzuten eta kontzerturen bat edo beste ematen. Egia esan, promozioa patxadaz hartu dugu. Ez gara gehiegi arduratzen. Garai batean, lehenengo diskoarekin asko mugitu ginen baina orain lasai gaude. Entseiuak egiterako orduan oso langileak gara, gero eta gogo handiagoaz hartzen ditugu. Baina mugitzeko eta kontzertuak emateko... kar, kar, kar... Orairi seme-alabak dauzkagu eta gauzak aldatu dira. Bestetik, esan beharra dago egun ez dagoela kontzertuak emateko prestatuta dauden lokal ugari; edo kriston lokalak dira edo erabat txikiak.

Kontzertuei dagokienez, orain arte Gasteizen, Bilbon eta Madrilan aurkeztu dugu lan berria eta horretan gaude. Hurrengo ekainaren 23an Hell Doradon egongo gara.

Orain dela 10 urte baino gehiago murgildu zineten musikaren munduan. Denbora luze honetan aldatu al da Gasteizko panorama musikala?

Hirian betidanik egon dira musika taldeak eta azken bolada honetan martxa berean jarraitzen dugula esango genuke. Egia esan, mugimendu asko dago, entseiu lokal asko baina zaila da musikaz bizitzea. Bestetik, gu hasi ginen garaian diskoetxeen krisia hasi ze gero eta zailagoa da disko bat argitaratzea. Izan ere, Myspace bezalako webguneak asmakizun onak dira musika taldeentzat, euren musika ezagutzera emateko ■

proposamenak

cd

'hari biru'

maddi oihenart | elkar-2007ko apirila | elkarlanean.com

bere bozaren sotiltasunari darion sentimenduaren emankortasunagatik, une honetan maddi oihenart piri-nioetako kantaririk adierazgarrienetakoa dela esan gene-zake. barrurantz abesten du maddik, bakea eta isiltasu-naren artean doinua bilatuz eta naturaren melodien artean uztartuz. maddiri kantatzen entzutea, milaka urtetako pagadi zuberotar batean murgiltzea bezalakoa da, oreka, freskura, bizitzaren murmurioa larruazaletik barrura sartzen zaigu berehala.

beste kantari eta musikari askorekin batera hainbat proiektutan hartu du parte maddik, baina honako 'hari biru' hau bere izenean kaleratzen duen lehen diskoa dugu. zuberoko esentziak, bere arimaren lasaia eta gizakiaren betidaniko oroimenak harilkatzen ditu maddik bere ahots eder, sendo eta zabalaren inguruan, bere konposizioak hala nola egungo zuberotar olerkiak besteren gainetik nabarmenduz. juantxo zeberioaren moldaketen soiltasuna lagungarri suertatzen da maddiren sentipena melodia gozoaz beztitzeko.

'hari biru' izeneko disko honek harritu eta harrapatu egiten gaitu; biluzia bezain dotorea, gizatiarra eta zerutiara aldi berean, maddiren ahots uni-bertsalak gure ametsen bidezidorrak argitzen dizkigu, irribarrez bere magal beroan.



liburua

'noeliaren arka'

txabi arnal | ibaizabal-2007ko maiatza
(gaztetxo! saila. 10 urtetik aurrera)
ibaizabal.com

tigre batek dentista jan du. beste tigre bati marrak ezabatu zaizkio. sugeak barre egiten dio panterari. lehoiak tarzan barregarri utzi nahi du. hartza haserre dago. gorila malabarista haserreago. ostruka urdinari arrautza lapurtu nahi diote. beste ostruka batek ikusten duen guztia irensten ohi du. jirafari aire freskoak kalte egi-ten dio. zebrak etxe bila dabilta...

eta ni? kalera joateko bi aldiz pentsatu behar dut... astakeria hauek guztiak nire hirian bertan gertatzen ari baitira!!!



diseinadore grafikoa / maketatzailerak behar da
(quark xpress / adobe indesign / freehand / photoshop)
curriculum-a bidali: info@dalvez.com

haur&gazteliteratura



PASITO

t. txabi arnal gil

Pasito, ahate gaztetxoa, nekatuta dago. Amaren bila dabil, lehenbait lehen aurkitu beharra dauka, baina indarrak gero eta eskasagoak ditu. Bilaketa utzi ala bilatzen jarraitu. Horra hor Pasitoren dilema.

Eta, jakina, amaren bila jarraituko duela erabakiko du Pasito ahate gaztetxoak. Eta ahulezia gaudituko du. Lana eta aurrerantza joateko ahaleginak jolas bihurtuko ditu. Pausoz pauso helmugara hurreratuko da. Eta baita iritsi ere. Bizitza horrelakoa delako, ibiltzen pauso batez hasten garelako, eta atsedena hartu aurretik pauso bat ematen dugulako.

Ekitea eta saiatzea ditugu, beraz, Pasitoren bitartez egileak helarazi nahi dizkigun irakaspenak, beldurra, bakardadea, etsipena eta zalantza aurrerantza ibiltzen uxatzen baitira, hots, Pasitok irakasten digun bezalaxe.

Simon James-en estiloa samurra bezain eraginkorra da, pertsonaien arteko elkarrizketetan eta lagunarteko hizkeran oinarrituta, umeari irakurtzea errazten dioten ezaugarriak, hain zuzen.

Kolore epelek eta perspektiba jokoek emozioak indartzen dituzte. Paisaia mugagabeak ahateen tamaina txikiarekin kontrastatzen du, Pasito eta bere anai-arrebak basoan galduta eta etxetik urrun daudeneko sentsazioa areagotuz.

Pasito. Zer egin dezake izaki txikiak, galduta eta lur jota? Zuhaitz erraldoien azpitik ibili, zelai amaigabeak zeharkatu, pausoz pauso konponbidera hurbildu, hain juxtu. Pasitok bezala■



Pasito. Simon James. Factoría K de Libros, 2006

PRESOEN SENIDEAK. BERAIEK ERE ZIGORTUTA

"Dagozkien eskubide guztien jabe, Euskal Presoak Euskal Herrira" leloa du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Araban uztaila bitartera abian jarri duen 'Mahatsondora' izeneko ekimenak. Euskal Preso Politikoen egoeraren berri eta nagusiki, arabar preso politikoen inguruko informazioa emateko, ekainean zehar eragile sozial, sindikatu, politiko eta norbanakoei interpelazioak egingo zaizkie. Aldi berean, senideek pairatzen duten errealitate gogorra ezagutzera eman nahi da.

"Konpromisoak bilatu behar dira. Eragile sozialak eta sindikalak, baita norbanakoak ere, dira hobekien erantzun izan dutenak orain arte. Baina 20 urteko dispertsio politika eta euskal presoek eskubideen urraketaren ondoren, politikariak dira eginbeharrak betetzeke dituztenak", diote Amnistiaren Aldeko Mugimendutik. 'Mahatsondora' ekimenaren xedea presoek kartzelan bizi duten egoera larriaren berri ematea da, eta horretarako dispertsio politikaren salaketa, 3/4ak edo 2/3ak bete dituzten presoek askatasunaren eta dagozkien eskubide guztien jabetza izatearen aldarrikapenak dira landuko diren gain nagusiak. Informazioa eskaintzeaz gain, interpelazioak egingo dira ekainean barrena eta azkenik, ekimenaren amaiera uztailaren 1ean izango da Laudion: haurrentzako txokoa, postuak, herri kirol eta Wu-shuren erakustaldiak, manifestaldia eta ekitaldia, bazkaria, bolo txapelketa eta berbena izango dira bertan, bai eta mus txapelketaren finala ere.



"ezin dugu ahaztu 600 presoren senide eta lagunak (2.400 lagun gutxi gorabehera) astero euren bizitza arriskuan jartzen dutela"

t. josune veleaz de mendizabal
a. edorta sanz

Arabar presoaren errealitatea

45 arabar preso politikoa daude, 42 gizon eta 3 emakume. Hauetatik 38 Estatu espainoleko kartzelatan eta 7 Estatu frantsesekoetan. Soilik Jose Antonio Hernandez 'Txusko' Euskal Herriko espetxe batean dago, Langraizen hain zuzen ere.

Arabarren kasuan, 3 preso dira espetxean jada 20 urte baino gehiago eman dituztenak: Jose Ramon Martinez de Lafuente, Josu Diaz de Heredia eta Iñaki Pujana.

13 arabar preso dira beren kondenaren 2/3ak edo 3/4ak beteta dauzkatenak eta berez baldintzapeko askatasunean izan behar liratekeenak: Gartzzen Garaio, Julen Fernandez, Manu Gonzalez, Jose Ramon Mtz de Lafuente, Josu Dz. de Heredia, Eduardo Plagaro, Gorka Perea, Gotzone Lz.



Jesus Diaz de Heredia eta Tere Ruiz de Arbulo

Iosu Diaz de Heredia Ruiz de Arbulo-k 21 urte daramatza espetxean kondenaren 3/4ak beteak dituelarik. Gaur egun Jaen II-ko espetxean dute. Bere gurasoei, Tere Ruiz de Arbulo eta Jesus Diaz de Herediari 21 urte hauetan esperientzia desberdinak bizitzea tokatu zaie.

"Nahiago dugu bisitan joan etxean geratu baino. Etxean gertzen garenean sufritu egiten dugu, hain da bidaia luzea, errepi-dea...", diote Iosu Diaz de Heredia preso arabarraren gurasoek. "Orain udan argia beranduago arte dago baina neguan... Bisita gainera 17:00etan jarri beharrean 18:00etan jartzen digute, losuk gainontzeko preso politikoekin kointziditu ez dezan... Kartzelaren barruan ere dispersioa ezarri egin diote, sinesgaitza da! Nondik hasi kontatzen? Hainbeste gauza dira!", dio Tere Ruiz de Arbulo 21 urtez preso duen semearen amak. "Jaengo kartzela izugarri zikin dago, izugarri. Kristalak ere garbitu gabe daude eta zuloetatik ez dago elkarri ulertzerik, kabinak txikiak dira, bero izugarria dago bertan... abuztuan 43 gradu markatzen zuen termometroak, ura eskatu nuen eta ez zidaten ura sartzen utzi... -dakur burura Terek erabat aztoratuta-. Amorratzen nau politikariek ez dakit zein lurraldetako espetxeetara bidaiatzen dutenean..., egon al dira sekulan kartzela hauetako batean? Hobe lukete hau ikustera etortzea".

Euskal presoek eta euren senideek pairatzen duten injustiziaz amorratuta daude dagoneko Jesus eta Tere, urte gehiegi baitira semea preso sartu zutenetik. "Euren lege propioak ez dituzte

errespetatzen, behintzat onar dezatela zertan ari diren", nabarmendu du aitak. Terek eta Jesusek presoentzat senideen babesa zenbaterainokoa den nabarmendu nahi dute eta honela diote: "Familia ezinbestekoa da egoera hauetan. Gaizki zaudenean hor egon behar duzu, noiz bestela? Kolektiboak ere izugarri laguntzen du".

Iosuk kondenaren 3/4 beteak dituen arren oraindik espetxeratu jarraitzen du. "Gu ez gara saiatzen inor konbentzitzen baina bai ikusi beharko luketela zer gertatzen den eta zein den preso-egoera -dio Jesusek-. Errealitatea ikusi beharko litzateke. Dena den, elkarretaratzetan eta gizarte mailan erantzuna eta parte-hartzea handia da..., baina beti dago aldarrikapena eta salaketarekin bat egin arren manifestaldietara etortzen ausartzen ez direnak, beldurra dela, botere mediatikoaren erruz...". Hauteskundeak pasatu berri direnean, Jesusek eta Terek, Iosuk bezala, diote preso-egoera ez dela "egokitza" hartu kanpaina garaian. "Ezin dugu ahaztu 600 presoren senide eta lagunak (2.400 lagun gutxi gorabehera) astero euren bizitza arriskuan jartzen dutela".

de Luzuriaga, Iñaki Fernandez de Larrinoa, Santos Berganza, Jose Angel Biguri eta Iñaki Pujana.

Eskubideen urraketen testigantza bi

Gaur egun, 600 euskal preso politiko dira Estatu espainoleko eta frantsese-ko espetxeetan dispersatuak daudenak eta Euskal Preso Politikoen Kolektiboa osatzen dutenak. Haue-
tatik, 45 arabarrak dira. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak abian jarri duen 'Mahatsondora' ekimenak euskal preso politikoak luzaroan jasaten ari diren eskubideen urraketen salaketa dakar, bai eta egoera honekin bukatze-ko eragile sozial, norbanako, sindikatu eta politikarien konpromisoaren eska-
era ere.

Komunikazioen interbentzioa; gutu-
nen mugapena eta erretentzioa; tele-
fono deien kopuruen murrizpena; fa-
miliarren zein lagunen bisiten era-
gozpenak; geroz eta zorrotasun gehia-
go "Teoría del Entorno" deritzonaren
aplikazioan; zailtasunak espetxeraturik
dauden bikoteen arteko erlazioetan;
murrizpenak eta hautagarritasunak
kanpotik jasotzen diren paketei
dagokienez; zailtasunak ikasketak
burutu ahal izateko; 2/3ak edo 3/4ak
bete dituztenak eta berez baldintzape-
ko askatasunean izan behar liratekeen-
ak; eta dispersioa, beste askoren
artean, euskal presoek eskubideen
urraketen adibideetako batzuk dira.
Josu Diaz de Heredia Ruiz de
Arbuloren presoaren egoera eta Iker
Zubia preso ohiaren Izaskun Urkijo
neska-lagunaren gertakizuna dira
kolektiboak bizi duen errealitatearen
isla gordinenetarikoak ■

Izaskun Urkijo

Izaskun Urkijo gasteiztarak 2003 urteko azaroan Valdemoron preso zegoen bere mutil-laguna bisitatzera zihoala istripua izan zuen Aranda de Duero. Berarekin zihoan Sara Fernandez neska nafarrak bizia galdu zuen istripu hartan eta Izaskun bizia galtzeko zorian izan zen Valladolideko ospitalean.

"Ez dut nire burua biktimatzat izan nahi, izan banaizela dakidan arren", dio 29 urteko gasteiztarak. Duela hiru urte eta erdiko istripuak bizitza aldatu zion, aurretik ere, mutil-laguna kartzelaratu egonda, berez Izaskunen bizia xamurregia ez zen arren. "Istripua gertatu aurretik arkitektura ikasten nuen astean zehar Donostian, asteburu gauetan Gasteizko taberna batean lan egin eta Madrilera joan bisitan. Hilabeteen hirutan joan ohi nintzen Madrilera, niretzako denborarik ez nuen... -gogora ekartzen du gazteak-. Preso baten senidea zaren heinean bizitza aldatzen zaizu; bere falta sentitzeaz gain, osa-
suna eta denbora galtzen duzu. Eta bizitza errepidean galtzera arriskatzeko zara".

Dispersioaren ondorioz senide eta lagun asko dira preso bisitatzera joan eta autois-
tripua jasan ohi dutenak. Izaskunena bereziki larria izan zen. Bisitatik bueltan zetozela izan zuten istripua. "Nik ez dut gogoratzen nola gertatu zen. Dakidana da bost egun egon nintzela koman eta gorputzeko hezur asko apurtu nituela, lesio ugari izan nituen -kon-
tatzen du-. Horren ondorioz nire bizitza aldatu da. Karrera atzeratzeaz gain, osasunari dagokionez errehabilitazio luze eta gogorra izan nuen eta minak pairatzen ditut gaur egun. Bizimodua aldatu behar izan dut zenbait aspektutan".

Izaskun neska indartsua da, bizitzaren egoera latzen aurrean kokiltzen ez den horieta-
koa. "Lagun eta familiarren laguntzari eta maitasunari esker atera nintzen. Eurengatik izan behar duzu indartsu. Hain da gutxi momentu horietan duzun energia ezen ezin baituzu negar egiteko erabili. Arnasa hartzeko behar duzu, aurrera ateratzeko, bizirik irauteko", aitortu du.

Istripuak bere bizitzan, baita bere bikotearen eta familiarenean ere, inflexio puntua ezarri zuen. "Sufritu dugun guztia sufritu ondoren, nire bizitzarako leloa zoriontsu izatea da. Ez daukat gorrotorik, horrek ez bainau laguntzen ezertan. Nahi dudana da nire bizitza berresku-
ratu, aurten karrera bukatu, nire mutilarekin bizi, familiak gertatutakoa gaingitu, eta guztia ahaztu. Nire mendekurik handiena zoriontsua izatea da -dio Izaskunek-. Eta hori da Sararen amari esan niona, nik bi pertsonengatik bizi behar nuela, niregatik eta Sararengatik".




"nahi dudana da nire bizitza berreskuratu, aur-
ten karrera bukatu, nire mutilarekin bizi, fami-
liak gertatutakoa gaingitu, eta guztia ahaztu"

GASTEIZKO DIOCESANAS IKASTETXEA

ETORKIZUNA EUSKARAZ LANTZEN

Euskal Herrian euskarazko heziketa gauzatzeko aukera zabalduta dago beheko mailetan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein Batxilergoan ere. Hala ere, ez da berdina suertatzen Lanbide Heziketa aukeratzeko garaian, Araban batez ere oso ziklo gutxi eskaintzen direlako D ereduari eta gaur egun hutsune handiak nabaritzen dira oraindik ere ikasketa hauek burutzeko orduan.



t. maite lekue
a. edorta sanz

Egoera honekin arduratuta, azken urte hauetan Diocesanak ikastetxeak apustu handia egin du lanbide heziketako ziklo batzuk euskaraz eskaintzeko. Horrela ba orain dela bi urte Goi mailako Administrazioa eta Finantzak zikloa martxan jarri zuten, Araban eskaintzen den bakarra izanik. Erdi Mailako zikloei dagokienez, aldez, bi dira Diocesanasek euskarazko ereduari eskaintzen dituen aukerak: Administrazio Kudeaketa eta Mekanizazioa, hain zuzen ere.

Administrazioa eta Finantzak Lanbide Heziketako goi zikloa orain dela bi urte abiatzea lortu zuen Diocesanasetan lanean ari den irakasle talde baten ekimenak eta denbora honetan lortutako esperientziak Lanbide Heziketa euskaraz gauzatzean sumatutako abantailak nabariak direla frogatu dute irakasleek.

Lanbide Heziketa D ereduari euskaraz ikasi nahi duenak hainbat onura izango ditu, besteak beste, euskaraz ikasten

jarraitzeko aukera izatea; DBH eta Batxilergoa euskaraz gauzatu duenak Lanbide Heziketa D ereduari Araban egiteko aukera izango du. Honen harira irakasleen esanetan DBH eta Batxilergoa euskaraz ikastera jendea erraz joaten da, ohitura egina dagoelako. Hala ere, Lanbide Heziketa hautatzen dutenen artean beldur moduko bat dago oraindik bide hau hartzeko orduan. "Orain arte egindako ikasketak euskaraz burutu dituenak ez du beldurrik izan behar Lanbide Heziketa euskaraz egiteko. Euskarari beldurra kendu behar zaio, egia da hiztegi berria maneiatuko dutela ikasketetan baina arazo hau berdina izango da bai euskaraz zein gazteleraz Lanbide Heziketa egiten duenarentzat", diosku Ane Villa Mekanizazioa ematen duen irakasleak.

Beste abantaila bat, D ereduari dauden taldeak txikiak izatea da eta honekin batera irakasleen laguntza ikasle bakoitzaren neurriari egokitu daiteke, arreta pertsonalizatua eskaintzen da eta ikasleak irakaslearenganako duen hurbiltasuna ere nabari da ziklo hauetan. Kike Korres Administrazioa eta Finantzak-eko irakaslearen esanetan, "gizartea gero eta gehiago eskatzen ari da euskaldun tekni-



kariak, euskarazko oinarria izanda dena da positiboa lanbide heziketa ziklo bat euskaraz gauzatzeko eta erdara aukeratzen duenak aukera aparta alboratzen du". Etorkizunean ikasle hauek izango duten lan eskaintzaz hitz egitean irakasleek ez dute inolako zalantzarik erakusten: "D ereduan Lanbide Heziketa aukeratzen duenak lana ziurtatuta dauka", esan dute aho batez irakasleek.

Proiektu errealak sortzen: 'Kultura Ekintzailea'

Lanbide Heziketaren funtsa aspektu teorikoak eta praktikoak uztartzean datza eta arlo honetan ere aurrerapauso handia eman du Diocesanaseko irakasle taldeak. Horrela ba 'Kultura Ekintzaile' proiektu barruan murgildu dira aurten eta bertan egitasmo ezberdinak aurrera atera dituzte, hala nola, Simulatutako Enpresa, Urrats bat eta EJE (Gazte Hezkuntza Enpresa) proiektua, non Euskadi mailako saririk nagusia lortu duen Diocesanaseko ikasle talde batek. Mikel Santos Administrazio Kudeaketako irakaslea dugu eta bere esanetan, "EJE egitasmoan ikasleek enpresaren gestio erreala egiten ikasten dute. EAEan 21 ikasketa zentro ari dira proiektu honetan eta denen artean 32 kooperatiba sortu ditugu, haietatik bi Diocesanasen bertan". Bertan ikasleek teknologia berriak maneiatzen ere ikasten dute, haien produktuak publikoarengana hurreratzeko web orriak, blogak zein katalogoak diseinatzen ibiltzen baitira. Zoriondu beharrekoak ditugu gainera ekimen honetan parte hartu duten

ikasleak, pasa den apirilaren 23an Kursoaren eginiko 'EJE Proiektu-aren Sari Banaketa'-n bi sari lortu baitzituzten, Arabako Lehenengo saria (2.000 euro) eta Euskadiko Lehenengo saria (3.000 euro).

Enpresa Simulatua

Beste berritasunen artean Enpresa Simulatua proiektua aipa daiteke, non ikasgela enpresako bulego bilakatzen den, ikasleak langile eta irakaslea enpresako zuzendari. Honela, enpresako lana lau sail desberdinetan banatzen da, eskaintzaz arduratzen direnak, eskaintza horren salmenta aurrera eramaten dutenak, giza baliabideen ardura dutenak eta enpresaren administrazioa kudeatzen dutenak. Guztiak ere benetako enpresa baten oinarritzko departamentuak, non ikasle taldeak sail denetatik pasa behar izango duen ikasgaia burutzeko. "Aurtengoa esperientzia berria izan da, oso positibotzat jotzen dugu eta ikasleak ere oso gustura ibili dira", esan digu Silvino Arkauz Administrazio eta Finantzaketako irakasleak.

Datorren ikasturtera begira

Datorren ikasturteari begira honako ziklo hauek eskainiko dira D ereduan Diocesanasen:

- Goi mailako Administrazioa eta Finantzak
- Erdi mailako Mekanizazioa
- Erdi mailako Administrazio kudeaketa

Urtero bezala ikasleei informazio eman eta eskolak erakusteko, 'Jardunaldi irekiak' antolatuta dituzte maiatza eta ekaineko astearte bakoitzean. Izena aurretik emateko epea aldiz, ekainaren 1etik 7ra bitartean egingo da eta informazio gehiago nahi duenak Diocesanaskastetxeak duen web orrialdean ere begira dezake: www.diocesanaskastetxeak.org

"D ereduan Lanbide Heziketa aukeratzen duenak lana ziurtatuta dauka"

"Gizartea gero eta gehiago eskatzen ari da euskaldun teknikiari, euskarazko oinarria izanda dena da positiboa lanbide heziketa ziklo bat euskaraz gauzatzeko eta gazte-leratu aukeratzen duenak aukera aparta alboratzen du"

Ikasleek 'EJE Proiektuaren Sari Banaketa'-n bi sari lortu zituzten, Arabako Lehenengo saria (2.000 €) eta Euskadiko Lehenengo saria (3.000 €)

EGUR

- Zuretzko teiltatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
Info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

FRANCISCO FERNANDEZ DE MENDIOLA

“Isaac Puente bere garaiari aurreratutako gizona izan zen”



Francisco Fernandez de Mendiolak bere lehen liburua kaleratu berri du, Isaac Puente Maeztuko (Arabako Mendialdea) mediku eta anarkismoaren teorizatzailearen bizi eta lanaren inguruan. Pertsonaia honek utzitako ondare eta lanaz mintzatzeko GEU ‘Isaac Puente, Maeztuko mediku anarkista’ liburuaren egilearekin izan da.

t. maite lekue

a. edorta sanz

Zergatik Isaac Puente?

Ni Maeztukoa naiz eta nire bizitza guztian izan dut Isaac Puente medikuaren berri. Nire aitona hogeita hamar hamarkada hasieran Maeztuko postaria zen eta garai hartan Puenterekin topo egin zuen herrian. Isaac Puente Maeztuko medikua izan zen 1919tik 1936ra, fusilatua izan zen arte. Denbora horretan eskutitz ugari jaso eta idazten zituen pertsona izanik nire aitonaarekin harremana sendotzen bukatu zuen. Nire etxean beti entzun izan dut Isaac Puenteren izena, zein mediku eta pertsona ona zen, eta denboraren poderioz bere pertsonarenganako interesa pizten joan zen nire baitan.

Nola sortzen da liburu hau idaztearen ideia?

1994 urtean Maeztuko talde baten ekimenak 1996an Isaac Puenteren jaiotza-ren mendeurrena zela ikusi eta haren omenez hainbat ekitaldi prestatzeari ekin genion, besteak beste, erakusketa bat, omenaldia, Puenteren izena eman zitzaion Maeztuko plaza bati eta abar. Erakusketa honetan bere bizitza eta

bere lanaren nondik norakoak azaltzeko berak idatzitakoak biltzen saiatu ginen eta honen ondorioz, berari buruzko dokumentazio piloa bildu nuen. Isaac Puenteri buruz asko idatzi dela ikusi nuen, batzuek bere mediku izaeraz idatzi dute, beste batzuek, aldiz, sindikalismoaren ikuspuntutik, politikariarenetik..., baina bere bizitza osotasunean hartzen zuen libururik argitaratu ez zela egiaztatu eta nire kabuz proiektu honetan lanean hasi nintzen.

Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako eskualde zehatz batzuetan izan ezik anarkismoak indar gutxi izan zuen Euskal Herrian XX. mendearen hasieran. Intelktuala eta lanbide liberala zuen pertsona bat anarkismoan mugitzea ezohikoa zen. Nondik jaso zituen Isaac Puentek iturri ideologikoak eta bizipenak?

Hau ziurtasunez ez dakigun gauza bat da, nola Puentek, ospe oneko medikua izanik, edozein lekutan eroso bizi izan zitekeenak, horrelako bizia aukeratu zuen. Bere sendia maila onekoa zen, bere aitak farmazia bat ireki zuen Gasteizen, egun San Frantzisko aldapan dirauena, eta bere ilobetako batek darama oraindik ere.

Anarkismoarekin izan zituen lehen harremanak arabako bi arabatar anarkista garrantzitsurekin izan zen, Daniel Orille eta Alfredo Donairekin hain zuzen ere. Maeztu aldean *vasco-navarroaren* obrak zirela medio, langile asko zegoen bertan eta CNTko propaganda banatzen elkarrekin topo egin zuten. Bere bizitzan izandako harremanen eta liburu asko irakurtzearen ondorioz bere ideiak anarkismorantz bideratzen hasi zen.

“Ama izan edo ez izateko eskubide osoa. Emakumearen emantzipazioa bere sexuaren esklabotzatik at, hots, etengabeko erditzetik”. Puentek idatziriko hau egun munduko emakume gehiengoak pairatzen du. Puentek ez zuen sexu erreformarik ikusten erreforma sozio-ekonomikorik gabe. Bere garaiko aurreratu bat izan al zen?

Gauza askotan bai, noski. Gezurra dirudi bere heriotzatik 70 urte pasa ondoren esaten zituen gauza ugari gaurkotatua izatea. Anarkismoaren edo komunismoaren filosofiarekin ados egon zaitezke ala ez, baina, Isaac Puentek esaten zituenak egun indarrean dira, sexualitatea, abortua, emakumeen gaiak... Nire ustez bere garaiari aurreratutako gizona izan zen.



isaac puentek esaten zituenak egun indarrean dira, sexualitatea, abortua, emakumeen gaiak...

bere bizitza akatzeaz gain, bere pentsamendua eta bere lana ere fusilatu zituzten

osasuna, askatasuna bezala norberak lortu behar du

Puentek 40 urteko bizitza laburra izan bazuen ere Medikuntza ikasi, liburu eta artikuluak idatzi, Sexu Erreformatarako Nazioarteko Ligan eta CNTren Osasunaren Federazio Nazionalan sartu, 1933ko Zaragozako matxinadan komite iraultzailea osatu, familia bat eratu, zenbait herritako nekazal medikua ere izan... Bizitza oparo eta interesgarri hau izan arren Puenteren irudia puntualki ikertua izan ohi da. Liburu honek argitasuna eman al dio komunismo libertarioaren funtsezko pertsonaia honi?

Nire ustetan Isaac Puente bere garaiko pertsonaia nabarmen eta garrantzitsua izan zen anarkismoaren barruan, ez soilik Euskal Herri mailan, bai eta estatu mailan ere. 36an harrapatutako heriotzak, bere bizitza akatzeaz gain, bere pentsamendua eta bere lana ere fusilatu zituen. Isaac Puentek idaz zezakeena, anarkismoari eskaini ahal izan ziona, medikuntzari, biziari oro har akatu zuten. Gezurra dirudi kasik 40 urterekin hainbeste sortu eta landu izana. Zaila izan da idatzitako guztia pilatzea, hain da zabala bere lana ezen ezinezkoa izan zait idatzitako artikulu guztiak jasotzea.

Bere heriotzaren inguruan. 1936ko uztailaren 28an atxilotua, alde egiteko beta izan zuen. Zein neurritaraino jabetu zen Isaac Puente bere bizitza pairatzen ari zen arriskuaz?

Berak bazekien arriskua bazegoela. Isaac Puenteren inguruko jende multzo bat bizikletaz Gasteiz eta Logroño aldera joan ziren egoeraz jabetzeko eta hauen esanetan, altxamendu frankistaren ondoren arriskua bazegoela kontatu omen zioten Puenteri. Honela alde egiteko aukera izan zuen. Baina denborarekin bere familia eta aita gogoan zituela etxean gelditzea erabaki zuen. Gauetan mendira alde egiten zuten herriko batzuek, baita Puentek ere. Medikuen etxe atzeko ateak mendira ematen zuen eta horrela medikuen zerbitzuak behar zirenean bere emazteak kriseilu batekin seinaleak egiten zizkion Puenteri etxera jaisteko. Behin tiroz zauritutako gazte batzuk sendatzen zebilela etxean geratzeko hautua hartu zuen. Handik egun gutxitara bere etxea Guardia Zibilak eta falangistek inguratu zuten eta Isaac Puente atxilotua izan zen. Gasteizko La Paz espetxean egon zen hilabete lekualdatu eta fusilatu zuten arte.

Zaila izan al da argitaletxe bat topatzea horrelako lana karrikaratzeko?

1996 urtean jaiotzaren mendeurrena ospatu genuen. Harrez geroztik Txalapartarekin harremanak izan ditut eta interesaturik agertu dira lehen momentutik. Garai hartan liburua argitaratu ez bazen antzeko ezaugarriak zituen liburu bat argitaratu zelako da. Urte horien guztien buruan dokumentazio gehiago lortzeko aukera izan dut eta duda izpirik gabe baieztatu dezaket orain aterako den liburua 1996koa baino arras hobea eta osatuagoa izango dela.

Zeintzuk izan dira biografia hau egiteko erabili dituzun iturri historiografikoak?

Nik egin dudana lana Isaac Puenteri buruz idatzitako guztia jasotzea izan da, bai Arabako bai Euskal Herri mailakoa, baina baita estatu mailan egin diren lan guztiak ere. Nire asmoa ahalik era liburu osatuena idaztea izan da. Era berean, Isaac Puentek idatzitako guztia Maeztun antolatutako erakusketarako bildu genuen eta familiako artxiboan zirauten argazkiak bere alaben bitartez jaso ditut■

EUSKALDUN DEZAGUN LAN MUNDUA, LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ

euskal herriak bere eskola

Euskararen benetako normalkuntzarako pausoak eman badira ere, oraindik hutsune nabariak geratzen dira. Horien artean aipamen berezi bat merezi du lan munduak. Euskara lan mundura eramane behar dugu eta horretarako errotik hasi behar da. Lanbide Heziketa euskaldundu behar dugu hain zuzen ere. Etorkizuneko profesionalak euskaldunak izan behar dira, are gehiago, bakoitzaren arloan euskara maila ona izan behar du eta hori lortzeko Lanbide Heziketa euskalduntzea beharrezkoa da.

Gaur egun berriz egoera hau ez da ematen. Gasteizen lau dira euskaraz ematen diren zikloak: Haur hezkuntza (Goi Mailakoa) Presentación de María ikastetxean, Gorputz eta kirol-ekintzak sustatzea (Goi Mailakoa), Natur ingurunean gorputz eta kirol-ekintzak gidatzea (Erdi Mailakoa), Koldo Mitxelena ikastetxean eta Administrazio eta Finantzak (Diocesan-Molinuevon). Gamarrako ikastetxean eta Ciudad Jardinen ere beste ziklo batzuetan ikasgai batzuk euskaraz ikasteko aukera ematen da baina gainontzeko ziklo guztiak erdara hutsean ematen dira.

Eta egoera honi denon artean buelta eman behar diogu. Gasteizek profesional euskaldunak behar dituelako, Euskarak behar duelako. Horretarako Instituzioei zuzentzen gara. Egia da bai ziklo asko euskaraz eskaintzen direla, baina ez instituzioek beraiek bultzatzen dituztelako, bai ziklo eta irakasle askok demostratzen duten konpromisoagatik eta egunerokotasunean egiten duten lanagatik. Argi daukagu afera honetan instituzioek asko daukatela esateko: Ratioen jaitsiera edo desagertzea, materiala sortzeko diru laguntzak eta liberazioak, ziklo guztiak euskaraz eskaintzea, praktikak euskaraz egiteko erraztasunak, eta abar.

Beste alde batetik ere ikasleei zuzentzen gara, datorren urtean lanbide heziketa ikasiko duten ikasle euskaldunei. Euskaraz ikasteagatik ez dela inor damutuko ziurta daiteke, taldeak txikiagoak direlako, lan munduan euskara gero eta beharrezkoagoa izango delako eta nola ez, arlo bakoitzeko euskara teknikoan ere, guk izan behar dugulako euskara lan mundura eramango dugunok, eta abar.

Edozein zalantza argitzeko Gasteiz@euskaleskola.org helbidea erabiliz gurekin harremanetan jartzeko aukera daukazu. Besterik gabe Euskarak merezi baitu, denon artean egoera honi buelta emango diogulakoan agurtzen gara ■

GASTEIZKO LANBIDE HEZIKETAKO EUSKARAZKO ESKAINTZA

EUSKARAZ EMATEN DIRENAK

Koldo Mitxelena:

Gorputz- eta kirol-ekintzak sustatzea (Goi Mailakoa).
Natur ingurunean gorputz- eta kirol-ekintzak gidatzea (Erdi Mailakoa)

Diocesan (Molinuevo):

Administrazio eta finantzak (Goi Mailakoa)

Presentación de María:

Haur hezkuntza (Goi Mailakoa)

ESKAINTZA BERRIA

Ciudad Jardín:

Merkataritza (Erdi mailakoa)

Informatika sistemen ustiapena (Goi mailakoa)

Diocesan (Molinuevo):

Administrazio kudeaketa (Erdi Mailakoa)

Diocesan (Nieves Cano):

Mekanizazioa (Erdi mailakoa)

Gamarra:

Sukaldaritza (Erdi mailakoa)

Jesus Obrero:

Mekanizazioa (Erdi mailakoa)

Mendizabala:

Mekanika Bidezko Produkzioa (Goi Mailakoa)

Industri Ekipoaren mantenimendua (Goi mailakoa)

Telekomunikabide eta Informatika Sistemak (Goi mailakoa)

Ekipo eta instalazio elektroteknikoak (Erdi mailakoa)

Eraikuntza institutua:

Hotz, girota eta beroa sortzeko instalazioen muntadura eta mantenimendua (Erdi mailakoa)

Lan arriskuen prebentzioa (Goi mailakoa)

TOLOÑO MENDILERROKO "ATEAK"

kike fdz de pinedo, filologoa

orain dela 50 urtera arte pipaon eta lagrango emakumeek mandoa hartuta errioxako herrietara jotzen zuten ikatza saltzera eta bueltan ogia, olio eta ardoa ekarri

era berean, samaniegon 1668an ere 'cerro de arratigui'. izenaren esanahia oso argia da: harri-ate-egi, mendatearen lekua, ezin egokiagoa

Mendilerro hau zeharkatzen dugunean bortitza bezain ikusgarria da dagoen paisaia aldaketa. Bere haitz tente harroek bi isurialdeen arteko muga ezartzen dute klima eta landaretza baldintzatuz. Muga fisiko hau baliatu izan da betidanik inguruko lurraldeak kontrolatu edo babesteko. Horrela Erdi Aroan, Buradon, Toloño, Ferrera (Herrera), Toro eta Matanongo gazteluek nafarren defentsa lerroa osatu zuten 1461 arte. Baina funtzio honez gain, mendiek inguruetakoa herrien jendea elkartzeko eta era askotako harremanak bideratzeko balio izan dute historian zehar. Toloñoko mendiak eta basoak, adibidez, Urizarra, Ozio, Bergantzu, Trebiñu, Buradon eta Bastidako herritarrek era komunalean erabili izan dituzte 'Divisa' baten bidez. Elkarte honen biltzarrak Toloñoko monastegian egiten zituzten eta ondoko zelaietan jaiak eta erromeriak, zezenketak eta guzti. Badirudi mendi hau sakratua izan dela Antzinatik, izena bera bardularraren jainko batena da (agian honaino iristen zen tribu honen eremua). Harreman horiekin batera bere bideetan baina ez dira falta izan merkataritza eta trukea. Toro mendatetik Oion eta Bermeo lotzen zituen 'ardoa eta arrainaren bidea' adibidez. Gaur mendizaleek baino ez dituzte bide hauek zapaltzen baina orain dela 50 urtera arte Pipaon eta Lagrango emakumeek mandoa hartuta Errioxako herrietara jotzen zuten ikatza saltzera eta bueltan ogia, olio eta ardoa ekarri.

Mendilerroaren arteko joan-etorri hauek mendate eta bidexka ugari sortarazi dituzte mendeetan zehar. 6 izan dira mendate nagusiak: Ribas, Pipaon, Herrera, Toro, Villafria/Kripan eta Bernedokoa. Lehen hirurek, ordea, ez dute beti izen hori izan.


Ribas mendatea Uribarri/Urribarri izenarekin ezagutu izan da. Uribarri, Urizahar udalerriko herri bat zen, N^a S^a de Sagardua ermitaren ondoan zegoena, mendatearen hasieran eskuin aldera. **Urdete** (txerri edo basurdeen mendatea), berriz, Pipaon mendatearen jatorrizko izena izan da. Pasabide hau Samaniego udalerriko Errioxako balkoi ingurutik hartzen da, eta ondoko parajeari gaur egun 'la llana de Ordate' deitzen zaio. Hurrengo mendatea Herrera da. Alde batean, antena dagoen lekuan, San Leon haitzean, Ferrera nafar gazteluaren arrastoak ikus daitezke, karlistadetan suntsitua. Eta beste aldean, Herrera mendi komunala. Mendi honetaz begira zen dioskun J.A. Gz. Salazarrek azken Ohitura bildumako 'Montaña Alavesa. Comunidades y pastores' liburu ederrean: "Herrera = En otros documentos también conocido por **ARRÁTEGUI**, hoy **ARÁTEGUI**...". Era berean, Samaniegon 1668an ere 'cerro de Arratigui'. Izenaren esanahia oso argia da: harri-ate-egi, mendatearen lekua, ezin egokiagoa. Mendate hauez gain baziren beste zenbait pasabide xumeago. Esate baterako, Peciña heritik gora **Atau** edo **Ataun** (atea edo mendatearen gunea) mendatea, eta desagertutako Orzales heritik **Osluna**, agiritan Hasleuna (1387) edo Esluna (1686) izenekin ere azalduta (agian: aitz + leuna). Antzinatik erabilitako pasabide hauen ondoan ez dira falta euskal izenak dituzten mendiak: **Atxabal** (haitz zabala), **Azkorri** (haitz gorria), **Gabaza** (pagadi batean dagoenez, agian Bagaza-tik sortua-pagoen lekua)... Ahaztu gabe gaur arte iritsi ez diren hainbat toki-izen bitxi: abibidez, Toloño mendian bertan **Zazpiturri** (7 iturri elkarren ondoan omen daude), **Iturrigorrieta** edo **Nafarbide**, seguru asko 1461 urtera arte izaera nafarraren arrastoa.

PANAMA EZKUTUAN

saioa fdz de arangiz

Aski ezaguna da Panama herrialdea zeharkatzen duen Panamako kanala, ez ordea, Erdialdeko Amerikako istmo honek gordetzen dituen altxorrak. Hondartza zoragarriak, oihan zeharkaezinak, mendi bolkanikoak, bost kultura indigena eta kolorez beteriko hiriburu. Hauxe dugu benetako Panama. Kolonoak 1500 urte aldera iritsitako paradisuak, baina hala ere, oraindik bidaiariek nekez ezagutzen dute herrialde honek eskaini dezakeena.

Errepublikak txiki honek mundu mailako ingeniariaritzaren obra harrigarrienetarikoa gordetzen du bere baitan, Panamako kanala. Honi esker, Amerika osoari buelta eman beharrean, mundu osoko itsasontziek ozeano batetik bestaldera dute pasabidea, gizakiaren eskuz egindako 80 kilometroko laku artifiziala zeharkatuz. Urte askotan gobernu estatubatuarren menpe egon den altxor preziatua, egun panamarren esku dago.



Mendeetan zehar merkataritzaren igerobide garrantzitsua izaki, aniztasun kulturala herrialdearen nortasun bilakatu da. Bertako indigenez gain, konkistatzaile espainiarren eta europar, txinatar eta indiar emigranteen ondorengoek, gehiengoak mestizoez, osatzen dute kolorez beteriko biztanleria. Nabaria, bereziki, Panama Cityn. Hiri moderno eta kosmopolitaren etxe orratzak, Panama Zaharraren XVI. mendeko arrastoak eta Alde Zaharreko Kolonia garaiko eraikinak nahasten dira bertan.

Ozeano Bareak eta Atlantikoak busti egiten dute Panama. Ozeano Barearen ur haserreak, surflarien paradisu, eta Karibeko ur epel eta gardenak, alegia. Azken hauetan kokatzen da, hain zuzen, San Blas edo Kuna Yala uhartedia, 300 uharte txikiz osatuta eta Kuna indigenen lurralde zoragarri eta isolatua. Kokondoak eta arrantza dira herri abegitsu honen bizibide lasaiaren sostengu. Ametzesko hondartzak, palmondoak, lasaitasuna dira nagusi.

Handik nahiko gertu, Isla Grande uhartea. Karibea %100ean. Patxadaz hartzen dute bizitza bertan. Bidean, historia handiko Portobelo herriarekin egiten dugu topo, konkistatzaileen aztarna ere. Bertako portutik espainolek kolonia zapalduetatik lapurtu zuten urre eta zilarraren gehiengoa atera zen.

Hondartza ezezik, Panamak ere mendia eta basoa ezkututzen ditu bere baitan. Batetik, Suitza Txikia bezala ezagutzen den Boquete probintzia. Lore, fruitu eta kalitate handiko kafearen laborantzak ugaritzen diren lurralde bolkaniko eta menditsua da, baita Gnobeg Bugle (guaymiak) indigenen bizileku. Bestetik, Darien oihan zeharkaezina, Kolonbiarekin muga naturala ezartzen duena eta Amerika osoa zeharkatzen duen Panamericana errepidea eten egiten den leku bakarra, hain zuzen.

Hauek dira, hortaz, Panamak, zuhur, temati, ezkutuan gordetzen dituen altxor preziatuak■

idazleak

MAITEMINA

xabier olaso

Estrata bihurri eta mehar batean aurrera KamiĖazpeko larrebelardi zabalera iritsi gara Natascha eta biok eta, egokiera profitatuz, sakelako telefonoaz hainbat argazki egin dizkiot aintziraren ondoan, haren edertasuna noiznahi begiesteko. Zinez aukerakoa da eguraldia eta oparoa, alafede, paisajea. Ezin ederragoa bera, ene Natascha, planta oneko holandar peto-petoa. Hara eta hona paseatu gara, pozarren, ardien bee apalak han-hemenka entzuten genituen bitartean. Sorginlandako iraganbidera orduko, eutsi ezinezko grina bortitz batek erasanda, nire eskuin eskuaz ipurdi-atallak laztandu dizkiot, eta astindu, sutsu eta oldartsu astindu ere, alajaina. Gorputz trinko haren aldamenean kitzikaturik ezin neure burua inolaz ere menderatu.

Nik ez dut fitsik ere esan. Nataschak ez du zirkinik ere egin, baina zeharo susper-tzeraino estutu zait arnasa niri. Bere begi urdin handi eta sakonetan finkatu ditut nireak zein xarmangarria den, oso atsegin dudala eta zeruaren azpian bera bezain eder eta lirainik ez dagoela belarri ertzean ahapeka aitortzeko tenorean. Hain dago eder lepoko txilin-hosdun horrekin! Bere begitartea arretaz behatu eta zirriak egin dizkiot erruz. Zeruak barka nazala!

Egia esatera, nire hirurogeitaka urtetan, gaurdaino, sekula ere ez naiz inortxoren aurrean halakorik esatera eta egitera menturatu. Gaur bai, bipilki jokatu dut. Nataschak, baina, ez du entzun, ez dit entzun duenik adierazi, bederen. Ezaxola itxurak eginez, buztan trinkoa ezker-eskuin inarrozi, lepoko zintzarria klan-klan burua eraitsi eta, bere ahĖ eskergaz, mauka-mauka bazkatzen hasi da.■

errezeta

Berdel solomoa tomate coulisarekin



Osagaiak:

- Berdel handi bat
- Patatak
- Tipulina
- Baratxuri berriak
- Tomatea

diocesanas-mendizorrotza

Berdela garbituko dugu, hezurak kenduz, eta bi solomo aterako ditugu; ondoren, solomo bakoitza bi zatitan ebakiko dugu.

Patatak xerra mehetan ebakiko ditugu, eta poliki-poliki egingo ditugu, juliĖan moztutako tipulinarekin eta brunoise eran ebakitako baratxuri berriarekin batera.

Tomate coulisa egiteko, tomate seruma behar dugu, litro bat, eta loditzen utziko dugu, hamarren batera arte.

Amaitzeko, berdela azalaren aldetik markatuta dugu, eta gratinagailuan bukatuko dugu. Gutxi eginda gelditu behar du, bestela, lehortu egingo baita. Molde baten laguntzarekin patata buket bat egingo dugu, ondoan, arraina eta coulis zerrenda bat jarriko ditugu, eta gozatzeko, tipulin xehatua botako diogu■

TAPELIA JATETXEA

ARROZETIK MEDITARRANEOKO SUKALDEAREN ZAPORE ANITZETARA



Tapeliak Gasteizen ireki du jatetxe berria. Alacanten jatorria duen frankiziak mediterranearen sukaldearen berezitasun. San Antonio kalean kokatzen den jantoki honen amu nagusia arroza da. Hala ere, oinarrizko produktuekin Tapeliak gustu eta aukera ekonomiko guztientzako plater berritzaileak eskaintzen ditu. Bilbon eta Donostian badira ere dagoeneko izen bereko bi leku non ondo jan.

t. josune veleaz de mendizabal


a. edorta sanz

Urtarrilean inauguratu eta bost hilabete-ko ibilbidearen ondorioz Gasteizko Tapelia Jatetxeko arduradunak balorazio oso positiboa egiten du: "Gasteizek ordura arte arroz on batez gozatzeko eskaintzarik ez zuen eta orain dagoeneko badu. Tapeliak asmatu egin du bete-betean".

Arroza da jatetxearen adierazle nagusia. Arroza modu ezberdinetara eskaintzen ditu jantoki alacantarrak, hala nola, klasikoa, beltza, itsaskiekin edota barazkiekin, besteak beste. Hala ere, bertaratzen den jendeak arrozaz gain haragi, arrain, entsalada, krep eta postre anitz eta berritzaileez

osaturiko kartaz gozatzeko eskaintza anitz du, non Alacanteko fideuà, bertako jaki tipikoa, ez den falta. "Platerak aurkezteko momentuan arroza ere Alacanten ohikoa den erara 'ireki' egiten da; jan aurretiko momentuan aska dadin arroz alea", azaldu du Tapeliako arduradunak.

Tapelia jatetxeek nortasun propioa dutela nabarmendu du Izaskunek. "Platerak aurkezteko eta sukaldatzeko moduz gain, Tapeliak edozein tokitan duen jatetxera gerturatuz gero arkitektura eta dekorazio beraz ere gozatu ahal izango da bezeroa". Kolore zuriak Alacanteko herriak ekartzen ditu gogora eta Elda harrobiko harriek jantzen dituzte hormak. San Antonio kaleko jantokian mahai txikiak edo intimoak, nahiz talde handientzako mahaiak aurki daitezke. Dastatze menua dute igande gauetik ostegun gauera bitartera, baina 10 lagun baino gehiagoko taldeentzako menu bereziak ere.



IZASKUN PEREZ DE VILLARREAL, gasteizko tapelia jatxeteko arduraduna

Nola erantzun du jendeak? Bezeroa arrozak erakarrita gerturatzen al da Tapeliara?

Bai, horrela da. Jendeak arroza bazkaltzeaz gain afaltzeko ere eskatzen baitu. Horrelako tokirik ez zen Gasteizen eta hori izan da gakoa. Jendea oso ondo erantzuten ari da.

Arroza da Tapelia jatetxeen nortasuneko produktua, baina ez ordea bakarra

Bai, hala da. Karta zabala dugu: haragia, arraina, krepak, entsaladak..., denetarik eta oso eskaintza betea.

Sukalde mediterranearra lantzen duzue bertan. Zeintzuk dira berezitasunak?

Produktuak oinarritzkoak diren arren (patatak, orburuak, tomateak, arroza bera,...) eurekin errezeta berritzaileak egitea da gure gakoa. Hau da, bistara oso plater erakargarria egiten du Tapeliak, baina ez soilik bistara baizik eta dastamenera ere, produktuak oinarritzkoak izateaz gain onak ere badirelako.

Zein da orain artean bezeroen platerik gogokoena?

Arrozaz gain? Ba panadera patatak adibidez, oso plater erraza da baina jendeak atsegin du oso. Bestetik, barazkien parrilla, ahuntz gaztarekin gainerretzen duguna. Gure plateren artean jendeak oso gustura jaten du hau.

Edozeinen poltsikora egokituriko jatetxea al da Tapelia?

Bai, kartan ditugun prezioak arrazoizkoak dira eta. Gasteizen orain arteko jatetxeek eskainitakoa 40 euroko eta menu baten arteko prezioak mugitzen ziren, ez zegoen tarteko ezer. Hor ere Tapeliak asmatu egin du ■



izaskun perez de villarrealen gomendioa

zizka-mizkak. gourmet entsalada foie eta ahate-konfitarekin edo barazkiak parrillan

1. platera. arroza (zalantzarik ez, bertan melengak edo normalak dituzu; melengak saldatsua goak dira). arroz saldatsua orein eta onddoekin, "hau berritzailea da eta jendeak sorpresa hartzen du"

2. platera. haragietan, idi azpizuna oportora ahate-foierekin. arrainetan, bakailao solomo gainerrea baratxuri muselinarekin

postrea. txokolatezko heriotza edo 2 lagunentzako chefaren berbena gozozalea (askotariko postrea)

m. mundina



Lope de Vega & Mundina

zutabea



Arabako Ramaiana...

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

'Arabako Euskal Hotsak' liburuan Odon Apraizen esaldia dago: "Kixote argitaratu zenean arabar gehienek Indiako Ramaiana bezala ulertuko zuten".

Batzuetan ahazten zaigu zergatik den Araba euskal lurraldea, hots, garai bateko arabarrek, oro har, euskara bertzerik ez zutela erabiltzen haien eguneroko bizitzan.

Ez ziren gu bezalakoak. Erdaraz pixkat aritzeko gai zirenean ez zituzten euskalduntzat hartzen, ja ez ziren "bascongados", "romanzados" baizik. Ofizialki elebidunak erdalduntzat hartzen ziren, egungo euskaldunak baino "euskaldunagoak" izan arren.

Zer gertatuko zaio euskarari euskaldunok euskaraz bizi ez bagara? Erantzuna: Odon Apraizek 1950. urtean idatzi zuen goiko esaldia. Garai hartan, bistan da, "Atxagaren edozein lan arabar gehienek Indiako Ramaiana bezala ulertuko zuten".

Oro genuen baina bortxaz kendu ziguten. Orain berreskuratzen ari gara, baina berreskuratzea ez da "mestizajea", "multiculturalidad", "globalización"... Berreskuratzea euskaraz bizitzea da. Benito Lertxundiren abesti ezagunak Libano, Amerika, Portugal, Frantziako olerki originalak dira. Berak, baina, euskaraz isuri ditu, eta inoiz ez zaigu iruditu Benito Lertxundi erdaltzalea denik. Are gehiago, abesti horiek euskal kantutegitean dira, gu ez baikara "itxiak". "Irekia" izatea ez da euskarari tokia murriztea, munduak eskaintzen digun oro euskaraz bizitzeko borondatea baizik. Orain, etorkizunean, eta baita arabar historian ere! ■

"Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?" (XV)

Hil honetan, irakurle, horrenbertze maite dudan Uda-Trebiñu alderdian paratuko gara. Izan ere, beharra non, laguntza han. Bi toki aztergai, agirietan hainbat urtez "Ozana" eta "Pariza" moduan ezagutu egin direnak.

Bada, "Ozana", XIII. mendean, "Foçano" eta "Tazano" gisa idatzi zuten, baita, hau da hau, "Otheo" izenean ere 1735. urtean. Beraz, auskalo.

Bertzea "Pariza" dugu. Bon, kronologikoki alderantziz egin dezagun: duela laurehun urte inguru "Apariza" agertu zen, lehenxeago "Parizuza" eta "Parizcicua" bidelagun. Ia duela zortzirehun urte "Pariçoça" omen zen, eta, ai ama, 1025. urtean "Barizahaza".

Hots, Uda-Trebiñun ere arabarrak euskaraz bizi ziren, baina oraino pairatu dutena...

? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@gm.es

HAUTAGAIK

HAUTAGAIK

3.-Umeari musu eman:
Aurreratu 3 lauki.

7.-Eroskeria-komisioa: Aurreratu 5 lauki.

- 23.-Auzitegi Nazionala, berriro:
Zoaz 0 laukira.
- 25.-Inkesta kaxkarrak: Atzeratu 3 lauki.
- 29.-Hauteskunde eguna, eguraldi ederra:
Atzeratu 2 lauki.

450 LAGUN ARTIUMEKO JAIALDI-GALAN



eta bertaratutako lagun guztiei!!!

MILA ESKER!

ESKERRIK ASKO GEURENGAN SINETSI DUZUENOI!!!

artium
tomas san miguel
makala
all jazz era
kunka
txiki tostado
gerardo markuleta
karmele jaio
patxi zubizarreta
kahina
ibon saenz de olazagoitia
iñigo sarasola
hala bedi
s.a.m.a
harpidedunak
bazkideak
irakurleak
iragarleak
neff
arabako foru aldundia
kide apaindura
olabide ikastola
mendia optika
summum ileapaindegia
gora taberna
ensueños
artepan
zuiako koadrila
ama-lur
cegasa
el clarete
eusko alkartasuna
diario noticias de álava
gertu
txistu garagardotegia
distribuciones araba
berria
egaztea
diocesanas
itsasmendikoi
radio vitoria
araba kulturala
canal gasteiz
eitb
vital kutxa fundazioa
eroski fundazioa
eusko jaurlaritza
gasteizko udala